EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA SAILA**
*Hezkuntza Sailburuordetza*
*Hezkuntza Ikuskaritza Nagusia*

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,**
Viceconsejería de Educación
Inspección General de Educación

# HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

# 2020 – 2021 IKASTURTEA

## EAE-ko HEZKUNTZA IKUSKARITZA

AENOR
ER
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008

CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## AURKIBIDEA

**1.- SARRERA** 2

**2.- TESTUINGURUA** 3

**3.- 2020-2021eko URTEKO PLANAREN HELBURUAK** 4

**4.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN KUDEAKETA SISTEMA. ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK ETA JARDUERAK 2020-2021eko IKASTURTEAN.** 8

**5.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA. IKUSKARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA.** 22

**6.- IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA.** 24

**7.- 2020-21eko URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA. EGUNERATZEA** 26

**ERANSKINAK:** 27

**I. ERANSKINA:**
Ikuskaritzak 2020/2021eko ikasturtean ikastetxeetan egingo dituen esku-hartzeen kronograma.

**II. ERANSKINA:**
2020-21eko Ikuskaritza Planaren azpiprozesuen zehaztapenak.

**III. ERANSKINA:**
2020-2021 urteko helburuak_lorpen adierazleak_jarduerak_arduradunak_datak

**IV. ERANSKINA**:
2020-2021. Prestakuntza-planaren jarduerak.

**V. ERANSKINA:**
Ekintza zuzentzaileen eta hobekuntza-ekintzen plana.

**VI. ERANSKINA:**
Ikuskaritza zonaldeak.

**VII. ERANSKINA:**
Urteko Planaren aldaketak.
Ikasteko, berritzeko eta hobetzeko mugarriak.

**VIII. ERANSKINA:**
Glosarioa.

## 1.- SARRERA

Legeriak esleitzen dizkion funtzioak betetzeko EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren Zerbitzuak dituen bideak dira Hezkuntza Ikuskaritzaren planak, haren izaera definitzen duten egitekoaren, ikuspegiaren eta baloreen markoan.

Horren arabera, hirurteko planen bidez egiten du planifikazio estrategikoa Ikuskaritzak eta hirurteko plan horien helburuak eta jarduera-ildoak urteko planen bidez konkretatzen dira.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak hezkuntza-erkidegoari eskaintzen dion zerbitzuak hobetzen jarraitzeko helburu berriak planteatzen ditu 2020-23rako hirurteko planak. Horretarako, aurreko hirurteko planaren ondorioak eta ikuskatze-memorian hezkuntza-sistemaren egoerari buruz jasotako datuak dira abiapuntu. Gainera, Hezkuntza Saileko Sailburuordetzen eta Zuzendaritzen ildo estrategikoak, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak Zonalde Burutzekin egindako balorazioak, Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzeko inkesten emaitzak eta egindako auditoretzen emaitzak hartzen dira kontuan.

2020-2023rako hirurteko helburuak lortzeari begira ematen dio 2020-2021eko urteko plan honek bere bideari hasiera eta hartuko diren erabakiak eta jardueren planifikazioa era esanguratsuan baldintzatuko dituen osasun-pandemiaren (COVID-19) egoera batean kokatu behar dugu.

Halaber, ikuskari berrien kopuru nabarmen bat sartuko dela ere aipatzeko modukoa da. Ikuskaritzaren ohiko jardueraren erronkei eta une honen egoera espezifikoak exijituko dituen beste batzuei egin beharko diete aurre ikuskari horiek.

Dena den, esfortzuak urteko jardueren (azpiprozesuak) eraginkortasuna hobetze eta beharko diren beste jarduera batzuk sortze aldera eta hezkuntza-sistema osatzen duten pertsona eta zerbitzuen premiei eman beharreko erantzunaren kalitatean aurrera egite aldera bideratzeko aukera gisa baloratu behar da pandemiaren zirkunstantzia hori.

Halaber, zerbitzuaren beraren hobekuntza sustatzeko aukera bat da eta, horretarako, ondorengo jarduerak egingo dira: gaurko prozesuen eraginkortasuna aztertuko da, arriskuak analizatuko dira, ustekabeko egoerei erantzuna emateko prozedura arin eta eraginkorrak bilatuko dira, ziurgabetasuna kudeatuko da eta etengabeko hobekuntza bermatuko duten ebaluatzeko prozesuak sistematizatuko dira. Gainera, Ikuskaritzan garapen profesionala, inplikazioa eta kide sentitzea sustatzeko jarduerak eramango dira aurrera.

Helburu horiek lortzeko prozesuan, funtsezko tresna hauek izango ditugu: EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren kudeaketa-sistema, UNE-EN ISO 9001:2015 araudiaren arabera; ikastetxeak hobetzera bideratutako esku hartzeko eredua; V92 Ikuskaritzaren aplikazio informatikoa eta aplikazio horretan inplementatu beharko liratekeen hobekuntzak; komunikazio- eta prestakuntza-prozesuak eta, batez ere, Ikuskaritzako plantila osoaren inplikazioa.

Dokumentu honek, lehenik eta behin, **sarrera** eta testuinguruaren analisi bat egin ondoren, **2020-21eko ikasturterako** planteatutako **helburuak,** 2020-23rako hirurteko helburuak lortzeko prozesuan lehen urratsa direnak, aurkezten ditu. Geroago, urteko helburuak lortze aldera erabiliko ditugun **oinarrizko jarduera-ildoak** agertzen dira. Aurrerago, Ikuskaritzako kideen **prestakuntzari** eta zerbitzuaren **antolaketari** eskainitako puntu bana aurkezten dira, prestakuntza eta antolaketa horiek helburuak lortzeko eta antolaketaren hazkunde profesionala gertatzeko funtsezko elementuak baitira.

Azkenik, urteko planaren beraren **ebaluazioa** azpimarratzen da, gauden **egoera aldakorrari erantzuna emateko** asmoz behar diren **egokitzapenak** egiteko ezinbesteko elementua den aldetik, **helburuak** lortzeko bidetik ez **desbideratzeko** eta, zalantzarik gabe, **ikasteko eta hobetzeko** sortuko diren **aukerak** aprobetxatzeko.

Aipatutako ataletako batzuk konkretatzen dituzten **eranskin** batzuekin osatzen da plana.

## 2.- TESTUINGURUA

Testuinguruaren bi faktorek baldintzatuko dute, era berezian, 2020-21eko urteko planaren planifikazioa:

**a) COVID 19 osasun- eta epidemia-egoera:**

Aurreko ikasturteetan baino begi-bistakoagoa izango den esku-hartze estua eta trinkoa eskatuko du egoera honek ikastetxeetan. Halaber, hezkuntza-administrazioko arduradunek etengabe ari behar izango dute lankidetzan, hezkuntza-sistemaren egoerari eta premiei buruzko informazioa unean-unean helarazteko eta, horrela, erabakiak errazago hartzen laguntzeko.

Ziurgabetasun-egoera batean lan egiten eta programatu gabeko premiazko beharrei erantzuna ematen ikasi beharko da. Egoera horrek ahalegin sortzailea eta berritzearen aldeko jarrera sustatzailea eskatuko dituzte, erronka berriei erantzuna emateko.

**b) Belaunaldi-berritze inportantea Ikuskaritzaren plantilan.**

Planteatzen diren erronkei aurre egiteak ezagutza eta esperientzia izatea eskatzen du Ikuskaritzako plantilaren aldetik.

Ardurak esleitzeko unean 2020-21eko ikasturtearen hasieran Hezkuntza Saileko karguetan dauden pertsonengan eta Ikuskaritza Zerbitzuaren beraren zuzendaritza-postuetan izandako aldaketek esfortzu gehigarri bat eskatzen dute eta esfortzu hori hartu behar da kontuan, egin beharreko jarduerak planifikatzeko orduan.

Gainera, antolaketara pertsona berriak sartzea hartu behar da kontuan, joan den ikasturtearen bukaeran izan zen oposizio-prozesuaren ondoren; izan ere, plantilaren % 25 praktikak egiten ari da.

Aurrekoa eta, halaber, COVID-19 egoeraren ondoriozko eskaera berriak hartzen baditugu kontuan, begi-bistakoa da ahalik eta azkarren eskuratu behar direla egoera horri aurre egiteko ezagutza eta esperientzia.

Halaber, Ikuskaritza Nagusiaren izendapena lehen hiruhilekoa oso aurreratua zegoenean gertatu dela hartu behar da kontuan. Horrek atzerapenak ekarri ditu, plan honetan agertutakoa aurkeztu eta martxan jartzeko orduan.

Faktore horiek aintzat hartuta eta aurreko hirurteko planaren ondorioak (2020-23ko hirurteko planaren 2.2. atalean jasota agertzen direnak) abiapuntutzat hartuta, ondorengo puntuan agertzen diren helburuak planteatzen dira. Dena den, helburu horiei egoerak exijitzen dituen zuhurtzia eta malgutasunarekin egin behar zaiela aurre nabarmendu behar da, etengabe aldatzen diren hezkuntza-sistemaren premiei erantzun bat emateko.

## 3.- 2020-2021eko URTEKO PLANAREN HELBURUAK

Ondoren 2020-21eko ikasturterako urteko helburuak, 2020-23rako hirurteko planaren helburu bakoitzari lotuak, aurkezten dira.

| L 1. HIRURTEKO HELBURUA |
|---|
| *1. Indarreko legerian ezarritako hezkuntza-erkidegoaren **eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko** Hezkuntza Ikuskaritzak eman beharreko laguntzan aurrera egitea, ondorengo jardueren bidez:*<br>*1.a- Zirkunstantzia espezifikoetara (COVID-19 adibidez) egokitzeko prozedurak ezartzea.*<br>*1.b- Gaurko prozedurak eta, era espezifikoan, elkarbizitzari lotutakoak berrikustea, gero eta eraginkorragoak izango direla eta gero eta eragin handiagoa izango dutela egiaztatzeko.*<br>*1.c- Administrazioarentzako proposamenak egitea, indarreko legeriaren gaurkotzea eta hobetzea sustatzeko.* |
| **2020-21erako helburuak** |
| 1.a. Hezkuntza-prozesuak **COVID-19ak** eragindako epidemia- eta osasun-egoerara egokitzeko Sailak ezarritako **aparteko neurriak betetzen diren** egiaztatzeko prozedurak diseinatu eta gauzatzea.<br>1.b. **Indarreko legeria betetzea dela-eta** Ikuskaritzak gaur egiten dituen **lanak** aztertzeko **eraginkortasun- eta eragin-irizpideak** izatea eta hobekuntzaren premia handiagoa duten lan horiek identifikatzea; izan ere, **elkarbizitzaren kudeaketari** lotutakoei eman beharko zaie arreta espezifikoa.<br>1.c. **Gaurkotzea** eskatzen duten indarreko **legeriaren** alderdi horiek identifikatzea. |

| 2. HIRURTEKO HELBURUA |
|---|
| *2.- **Ikastetxeetan esku hartzeko** EAEko **Ikuskaritzak duen** ereduaren eraginkortasuna hobetzeko prozesuan aurrerapausoak ematea. Ondorengo puntuei emango zaie, batez ere, lehentasuna:*<br>*2.a- Ikastetxeen hobekuntzari era esanguratsuagoan eragiten dioten alderdi horiek, emaitzei buruzko memorien ondoriozkoak eta testuinguruaren zirkunstantzietara egokitzea eskatzen duten horiek batez ere.*<br>*2.b-Ikastetxeen ikuskatzearen inguruan egiten diren jardueren koherentzia, eragina eta eraginkortasuna ziurtatzea. Pertsonen ebaluazioa nabarmendu behar da.* |
| **2020-21erako helburuak** |
| 2.a.b. Ikastetxeak **ikuskatzeko jarduera** bat sortzea, COVID-19aren testuinguruak eragin esanguratsuena izan duen alderdi horiek, irakatsi eta ikasteko eta antolaketa-prozesuari lotutakoak, agertuko dituena.<br>2.b. Ikuskatze-jarduerei buruzko memorien emaitzak aztertzea,gaurko jarduerak (AZ) **ikastetxeak hobetzeko prozesuan** sortzen den eraginaren ikuspuntutik berrikustea eta **jarduteko eremu berriak** identifikatzea.<br>2.b. Ikuskaritzak ikastetxeetan gauzatzen dituen jardueren ondorioz **ikastetxeei helarazten zaien** informazioa aztertzea, jarduera horiek **balioa ematen dutela ziurtatzeko** eta sakabanaketa ekiditeko.<br>2.b. Pertsonak ebaluatzeko gaurko prozedurak (zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, praktiketako funtzionarioak, irakasteko gaitasunaren ebaluazioa … ) inpaktuaren terminoetan berrikustea eta haien eraginkortasuna hobetzeko ondorioak eta proposamenak lortzea.<br>2.b. **Irakaskuntza-** eta prestakuntza-ebaluazioa egiteko prozesuaren diseinua bukatzea eta arau-erregulatzearen proposamen bat egitea.<br>2.a. Ikasleak ebaluatzeko prozesuaren diseinua berrikustea. Etengabeko ebaluazioaren zentzua eta ebaluazioaren eta kalifikazioaren erreferentzia izango diren gutxienezko adierazle argiak definitzeko premia ikastetxeei helarazi behar zaizkiela azpimarratuko da. **Ikastetxeetan esku hartu beharreko lehentasunezko alderdiak identifikatzea.** |

| 3. HIRURTEKO HELBURUA |
|---|
| *3.-**Hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan aritzeko prozesuaren eta, oro har, gizarteari eman beharreko erantzunaren** hobekuntzan aurrera egitea:*<br>*3.a- informazioa biltzeko prozedurak egokituz eta herritarren eskaerak kudeatzeko prozesua azkartuko duten beste batzuk ezarriz.*<br>*3.b- hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostenak emanez. Txosten horiek jasotako informazioaren ondoriozko proposamenak izango dituzte eta erabakiak errazago hartzeko izango dira lagungarri.*<br>*3.c- sistemaren ebaluazioari lotutako jardueretan edo beste batzuetan parte hartuz, gardentasunaren bermea emanez, araudiari lotuz eta hezkuntza-sistema ezagutuz.*<br>*3.d- hezkuntza-erkidegoak eta, oro har, herritarrek Hezkuntza Ikuskaritzak egiten duen jarduera hobeto ezagutu dezaten laguntza emanez.* |
| **2020-21erako helburuak** |
| 3.a- Hezkuntza-sistemari buruz informazioa lortzeko gaurko tresnak hobetzea eta arinago eta eraginkorragoak izango diren beste batzuk proposatzea.<br>3.a- Administraziotik eta herritarrengandik datozen eskaerak (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagunea … ) jaso eta kudeatzeko gaurko prozedurak analizatu eta ebaluatzea.<br>3.b- Txostenak ematea, Hezkuntza Administrazioari helaraztea eta hartutako erabakiak direla-eta haien eragina aztertzea.<br>3.c.- Langileak kudeatzeko prozeduretan lankidetzan aritzea, araudia sortu eta egokitzeko prozesuan aholkularitza eman eta lankidetzan aritzea, informazioa jasotzea, horrela eskatzen duten egoeretan orientabidea ematea eta bitartekari-lana egitea, Aurreraka kontrasteetan parte hartzea, …<br>3.d- Web orria gaurkotzea.<br>3.d- EAEko Ikuskaritzaren zerbitzuen kartera egitea. |

| 4. HIRURTEKO HELBURUA |
|---|
| *4.-**Zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa** hobeto egiteko prozesuan aurrera egitea:*<br>*a.- arriskuen analisian, arrisku horiei azkar eta eraginkortasunez erantzuna emateko prozesuan eta egokitzeko hartutako neurrien ebaluazio sistematikoan sakonduz.*<br>*b. – Jardueren eraginkortasuna eta emaitzen hobekuntza ziurtatuko eta handituko dituzten prozedurak ezarriz.*<br>*c- Haien digitalizatzea sustatuz, prozesuen eta berorien emaitzen planifikazioa, jarraipena eta kontrola optimizatzeko.*<br>*d.-Prozesuen bidezko kudeaketa-sisteman kudeaketa aurreratuaren eredurantz aurrera eginez.* |

| 2020-21erako helburuak |
|---|
| 4.a.1- **Egitekoaren /Ikuspegiaren /Baloreen** berrikuspen eta gaurkotze parte-hartzaile berria. Analisiak, bai DAFOn (ahulguneak- mehatxuak- indarguneak-aukerak), bai CAMEn (zuzentzea-aurre egitea, hobetzea- ustiatzea). |
| 4.a.2- **Arriskuen analisi sistematikoa** errazteko prozedura eta tresnak izatea.Arrisku horiei aurrea hartzeko eta aurre egiteko arriskuak eta prozedurak definitzea (CAME metodologia). |
| 4.a.3- **Geroago sor daitezkeen egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea** ahalbidetuko duten prozedurak izatea.<br>4.b.-Ikuskaritzaren jarduerek duten **eragina ebaluatzeko** prozesuak hobetzea, proposatutako helburuak emaitzen terminoetan ebaluatzea erraztuko duten **adierazleak** ezarriz (funtsezko AZetan), **alde interesatuek** (familiek, ikasleek, irakasleek,administrazio-pertsonalak era sistematikoan) **informazioa,** orain arte jaso ez dena batez ere, **jasotzeko prozedurak** ezarriz eta alde interesatu haiengandik ikasiz. |
| 4.c- **Bitarteko telematiko eta teknologikoak ezagutu eta erabiltzeko prozesuan** aurrera egitea, jarduerak eraginkorragoak izatea errazteko tresnak diren aldetik. Horretarako, V92 aplikazioari, Office 365aren aukerei, Exceli, bideokonferentzietarako apps-ei buruzko prestakuntza emango zaio plantilari. |
| 4.d- **Kudeaketa aurreratuaren eredu** baterantz aurrera egitea, **kontraste** bat eskatuz eta **pertsonak** elementua landuz. |

| 5. HIRURTEKO HELBURUA |
|---|
| *5.-Ikuskaritza **Zerbitzuaren gaitasun profesionalaren** hobekuntza globalean aurrera egitea eta, horretarako:*<br>*a. Ikuskariaren gaitasun profesionalen eta zerbitzuak eskatutako espezializazio-eremuen deskripzio bat izango da,ebaluazio- (LEP, zerbitzu-eginkizunen selekzioa …) eta autoebaluazio- (prestakuntzari buruzko erabakiak) prozesuetan erreferentzia gisa baliagarri izango dena.*<br>*b. Komunikatzeko, informazioa hedatzeko, parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko prozeduretan sakonduko da.*<br>*c. Inplikazioa, kide izatearen sentimendua eta pertsonak antolaketaren helburuekin lerrokatzeko prozesua sustatuko dira.*<br>*d. Prestakuntzaren eragina hobetuko da eta ezagutzaren transferentzia segurtatuko duten bideak ezarriko dira, antolaketan hasten diren pertsonek gaitasunak garatzeko prozesuari arreta berezia emanez.* |
| **2020-21erako helburuak** |
| 5.a- **Ikuskariaren funtzioaren** gaitasunak azalduko dituen eta autoebaluazio- eta ebaluazio-prozesuetan (LEP,zerbitzu-eginkizunen selekzioa … ) erreferentzia izango den tresna bat **egitea.** Ikuskaritza **Zerbitzuaren** gaitasun profesional **orokorren analisi** bat egitea. |
| 5.b- Parte-hartzea, **komunikazioa** eta informazioa **hedatzeko** prozesua hobetzeko gaur egun erabiltzen diren prozedurak **berrikustea. Eraginkorragoak izateko proposamenak egitea.** |
| 5.c.1- Inplikazioa, kide izatearen sentimendua eta pertsonak antolaketaren helburuekin lerrokatzeko prozesua sustatzeko erabil daitezkeen **prozedurei buruzko azterketa bat izatea.** |
| 5.c.2- **Antolaketan** dauden **pertsonen** gaitasunen, zaletasunen, kidetasunen … zerrenda bat izatea, lanak pertsona horien ezaugarrien arabera banatzeko. |
| 5.d.1- Erretiroen ondorioz gertatzen den ezagutza-galtzea gutxitzera bideratutako prozedurak izatea eta **gaitasunak garatzeko prozesua arintzea** sisteman hasten diren pertsonen artean.Harrera- eta tutoretza-plana berrikustea. |
| 5.d.2- **Prestakuntzaren eragina** neurtzeko aukera emango duten prozedurak izatea. |

| 6 . HIRURTEKO HELBURUA |
|---|
| 6.- ***Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzeko*** *prozesuetan aurrera egitea, aliantzak egitea eta hobekuntzarantz etengabe joatea eta une bakoitzaren zirkunstantzia espezifikoetara era eraikitzailean egokitzea (egokitze horrek ikaskuntza eta etorkizunari begirako aurrerapena ekarriko ditu) ahalbidetuko dituzten* ***berrikuntza-prozesuak sustatzea.*** *Horretarako, plantila osoa inplikatuko da.* |
| **2020-21 erako helburuak** |
| 6.1- Ingurune hurbileko eta estatu eta Europa mailako ikuskaritzekin **lankidetzan aritzea,-** COVID-19 pandemia kudeatzeari emango zaio lehentasuna,- ikastetxeetan esku hartzeko eta hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan aritzeko **praktika onak jaso eta partekatzeko.**<br><br>6.2- **Berrikuntzaren zaintza-ekipoa** aktibatzea. Horretarako, funtzioak, eginkizunak, bileren maiztasuna, lan-dinamika … gaurkotu edo konkretatuko dira.<br><br>6.3- Praktika onak jasotzeko, hobekuntzak iradokitzeko, praktika berritzaileetarako … prozedurak ezartzea, praktika on, hobekuntza eta praktika berritzaile horiek bideragarriak diren aztertzea eta ezartzeko eta ebaluatzeko estrategiak zehaztea. |

Agiri honen III. eranskinean 2020-21erako urteko helburuak, lorpen-adierazleak eta helburuak errazago lortzeko baliagarri izango diren jarduerak jasota agertzen dira.

## 4.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN KUDEAKETA SISTEMA. ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK ETA JARDUERAK 2020-2021eko IKASTURTEAN.

### 4.1.-HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN MAKROPROZESUAK ETA PROZESUAK.

Urteko plan honen helburuak lortzeko jarduera-ildoak eta martxan jarri beharko diren jarduerak deskribatu aurretik, jarduera horiek kudeatzen diren markoaren azalpen labur bat egin behar da.

Hirurteko Plan Orokorrean,- egitekoan, ikuspegian eta baloreen markoan adierazitako helburuak lortze aldera orientatzen ditu bere helburuak plan horrek,- erabilitako ikuspegitik abiatuta, EAEko Hezkuntza Ikuskaritza, kalitatea kudeatzeko ISO 9001-2015 sistemaren arabera, ondorengo makroprozesuetan antolatzen da:

- MP 01.- Estrategia, Planifikazioa eta antolaketa.
- MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.
- MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.
- MP 04.- Dokumentuen kudeaketa.
- MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.
- MP 06.- Neurketa, analisia eta hobekuntza.

**Makroprozesu** hauek guztiek ematen diote Ikuskaritzaren jarduerari laguntza eta jarduera hori, gehienbat, MP 02 ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA makroprozesuan jasota geratzen da.

Halaber, **ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA MP02** lau prozesutan antolatzen da, eta lau prozesu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoan definitutako alderdiei ematen diete erantzuna.

- PR Ikastetxeek eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.
  Ikastetxeen hezkuntza-ikuskatzearekin, batez ere, lotuta dauden azpiprozesuak sartzen ditu eta ikastetxeen funtzionamendua eta ikasleei ematen dieten hezkuntza-erantzuna, irakaskuntza-funtzioan aritzeko era eta zuzendaritza-funtzioa dira ardatzak.
  Jarduera horiek eremu horietan dauden premiak eta hobetzeko aukerak identifikatzera, hausnarketa egiteko prestakuntza-prozesuak sortzera eta, ondorioz, balorea emango duten eta irakaskuntzan hobeto aritzeko eta emaitzak hobeak izateko lagungarri izango diren proposamenak egitera bideratuta daude.

- PR Arau-kontrola/Eskubide eta eginbeharrak bermatzea.
  Hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubide eta eginbeharrak betetzeko bermeari lotutako azpiprozesuak. Funtsezko erreferentea indarreko legeria izango da. Jarduera horietan, gardentasuna, aukera-berdintasuna eta legeriaren izpirituaren araberakoak izango direla segurtatzea izango du Ikuskaritzaren jarduerak helburu.

- PR Gatazkak konpontzea. Elkarbizitza.
  Ikastetxeetan elkarbizitza positiborako lagungarri izango diren balore, jarrera eta jarduerak sustatzeari eta hezkuntza-eremua guztiei errespetatuko zaien eta guztiak parte sentituko diren toki seguru baten gisa, fisikoki eta emozionalki, bizitzeko eskubidea bermatzeari lotutako azpiprozesuak dira. Elkarbizitzaren kudeaketari, eta eskola-jazarpenari, lotutako esku-hartzeak, portaerak zuzentzeko prozedurak, bitartekaritza-prozesuak, ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoak, funtzionario publikoen diziplina-erregimenaren garapena, berdintasuna eta hezkidetza sustatzeko prozesua, babesgabeziaren kontrako protokoloak gauzatzea, … sartzen ditu.
  Ikuskaritzaren esku-hartzeak gardentasuna, laguntza eta arau-aholkularitza ematen ditu eta, batez ere, gatazkak behar bezala kudeatuko direla bermatzen du, esku-hartze horien emaitza zuzena izan dadin, guztien eskubideak berma ditzan eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatu eta hobetzeko prozesua susta dezan.

- PR Programen jarraipena. Sistemaren helburuak.
  Programa espezifikoen jarraipenari lotutako azpiprozesuak dira; izan ere, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eta Hezkuntza Sailburuordetzatik jartzen dira programa horiek martxan, hezkuntza-sistemaren helburuak lortzeko eta horretarako une bakoitzean sustatzen diren ildo estrategikoak aurrera eramateko laguntza eraginkorragoa eman dezaten ikastetxeek. Ikuskaritzaren esku-hartzea programa horien garapena erraztera eta sustatu dituzten helburuak bete diren edo ez baloratzera bideratuta egongo da.

4 prozesu hauetako bakoitzean sartu dauden jardueren (edo azpiprozesuen) zerrenda agiri honen II. eranskinean kontsulta daiteke.

Gainera**, <u>MP 01, MP 06 eta MP 03 makroprozesuen</u>** <u>markoan ondorengo jarduerak egiten dira:</u>

MP 01.- ESTRATEGIA, PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETA eta MP 06.- NEURKETA, ANALISIA ETA HOBEKUNTZA:

Ikuskaritza-zerbitzuak estrategia hobea izateko eta, egitura eta antolaketari begira, eraginkorragoa izan dadin egin beharrekoak, jardueraren emaitzak hobeak izatea sustatze aldera.
(Adibidez: egitekoaren, ikuspegiaren eta baloreen berrikuspen parte-hartzaile berria; gaurko azpiprozesuen (edo prozedurazko jardueren) helburuak berrikusi eta egokitzea, 2020-23ko hirurteko planaren eta 2020-21eko urteko plan honen helburuetara egokitzen diren edo ez segurtatzeko; arriskuen analisia, emaitzen analisia, puntu indartsuetan sakontzeko, aukerak aprobetxatzeko eta hurrengo ikasturtean inplementatu daitezkeen hobekuntzak planifikatzeko.

MP 03.- GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA:

Pertsonen gaitasun profesionalak hobetzeko jarduerak eta ezagutza ez galtzeko eta inplikazioa, parte-hartzea eta kide sentitzearen sentimendua areagotzeko estrategiak.

## <u>4.2.-FUNTSEZKO AZPIPROZESUAK 2020-21eko IKASTURTEAN</u>

MP2k lehenago adierazi ziren 4 prozesuak azaltzen ditu.
Haietako bakoitzak zenbait jarduera edo azpiprozesu (AZ) jasotzen ditu eta jarduera edo azpiprozesu horien helburuak egitekoan eta ikuspegian jasota agertzen diren elementuetara bideratzen dira.

Urtero, ikasturte bakoitzaren premia eta itxaropenei erantzuna emanez, azpiprozesu esanguratsuenak edo funtsezko azpiprozesuak identifikatzen dira eta jarduera espezifikoak aurrera eramateko lantaldeak aktibatzen dira (Talde horiek sarritan sistematizatzen dira eta azpiprozesuak eragiten dituzte).

2020-21eko ikasturtean **funtsezko azpiprozesuak** ondorengoak izango dira:

- AZ 022004 COVID-19 egoeran dauden ikastetxeak ikuskatzea.
- AZ 022386 Ikasleen absentismoa
- Administrazioarekin lankidetzan aritzeko jarduerak, hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko informazioa emateko.
  Unean-unean edo sistematikoki laguntzeko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak dira. Aurreikusten ez ziren edo, hainbat arrazoirengatik, garrantzi berezia hartu duten egoerei lotutako premiazko gaiei edo oso gai garrantzitsuei buruzko txostenak egitea sartzen dute. COVID-19ak eragindako egoera dela-eta ikastetxeen egoerari buruzko txostenak sartzen dira.

## 4.3.-ESKU HARTZEKO ILDO ESTRATEGIKOAK

Ikuskaritzaren jarduerak, goian adierazitako prozesuen maparen arabera antolatuak, ildo estrategiko batzuen bidez eramaten dira aurrera, ildo estrategiko horiek helburuak lortu arte ibili beharreko bidea markatuko dute eta, ikuspegi orokor batetik, koherentzia emango diote Ikuskaritzaren jarduerari.

Urteko plan honen helburuak errazago gauzatzeko esku-hartzearen ildoak eta jarduerak aurrera eramateko prozesuan erreferentzia izango diren jarduteko printzipioak 2020-23ko hirurteko planean jasota geratzen dira (plan horren 4. puntua ikusi).

3. puntuan adierazitako urteko helburuak errazago lortzeko, aurrera eraman beharreko jarduerak (II. eranskina ikusi) hiru ILDO ESTRATEGIKO handitan kokatzen dira:

- Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea
- Hezkuntza Saileko beste zerbitzu eta unitate batzuekin eta beste departamentu eta instituzio batzuekin lankidetzan aritzea
- Ikuskaritzaren hobekuntza

Dena den, aurrera eraman beharreko jarduera gehienek hiruren eremuei eragiten dietela adierazi behar da, ikastetxeak era sistemikoan ikuskatzeko erkidego honetako Hezkuntza Ikuskaritzak hartu duen ereduaren arabera diseinatu eta gauzatzen baitira.

## 4.4. 2020-2021eko IKASTURTEAREN JARDUERAK:

**Ikastetxeen ikuskatzea** eta **hezkuntza-sistemaren egoerari** buruzko informazioa jasotzea izango dira aurrera eraman beharreko jardueren ardatzak ikasturte honetan. Halaber, lankidetzan aritzeko eta informazioa eta informazio honen ondoriozko **proposamenak** hezkuntza-administrazioko arduradunei helarazteko prozesuak hobetu nahi dira, arduradun horiek erabakiak errazago har ditzaten.

Gainera, eta aurrekoaren laguntza gisa, Ikuskaritzako **plantilaren garapen profesionalari** lotutako jarduerak jarriko dira martxan eta behar diren orientabide, tresna eta prozedura teknikoak egin eta martxan jartzeko prozesua sustatuko da, planifikatutako jardueretan eraginkortasunez aritzeko.

Halaber, eta lan-taldeen bidez, Ikuskaritzak, bere eraginkortasuna eta egiten duen analisiaren ondoriozko aldaketen planifikazioa hobetzeko, normalean egiten dituen **eginkizunetako** batzuk **berrikusiko dira.** Halaber, behar diren beste jarduera batzuk planifikatuko dira, proposatutako helburuak lortzeko edo egoerak exijitzen dituen eskaera berriei arreta emateko. Hori guztia datorren ikasturtean inplementatzeko.

Halaber, beste erakunde eta zerbitzu batzuekin **lankidetzan** eta koordinazioan egiteko jarduera batzuetan, funtsezko jardueretarako eta urteko helburuak lortzeko lagungarri badira, hartuko da parte.

Marko horretan guztian, zonalde mailan eta lurralde artean indartu behar dira plantilaren barruan egin beharreko **koordinazio-**jarduerak. Horretarako, gero eta koordinazio-jarduera gehiago egingo dira eta gero eta eraginkorragoak izango dira. Aldaketak azkar eta etengabe egin beharko direla aurreikusten den egoera batean, informazio garrantzitsuak helarazteko orduan arintasuna, sortuko diren gaiei erantzun azkarra ematea eta irizpide bateratuen arabera jokatzea erraztuko duten orientabideak, kasu bakoitzean erantzuna eman ahal izateko behar den malgutasunarekin bateragarriak, bermatu beharko dira.

Egingo diren jardueren **jarraipena eta** etengabeko **ebaluazioa** beharrezkoak izango dira, jarduera horiek eraginkorrak izango direla segurtatzeko eta, aldatu behar izanez gero, nola aldatu behar diren erabaki ahal izateko. Zerbitzua koordinatzeko tresna desberdinak, Ikuskatze Batzordea batez ere, eta sistemaren eta erabiltzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkesten emaitzak jasotzeko prozesuen kontrola eta jarraipena elementu aktiboak izango dira, era eraginkorrean helburu hori lortzera bideratuak.

## FUNTSEZKO JARDUERA BATZUEN DESKRIPZIOA:

Ondoren 5 jarduera hauek deskribatzen dira, 2020-21eko ikasturtean funtsezkoak izango direnak.
Haietako bakoitzean urteko helburuak eta inplikatutako prozesuak edo azpiprozesuak adierazten dira. Gainera, haietako bakoitza deskribatzen da.

1. JARDUERA:
AZ 022004 COVID-19 TESTUINGURU BATEAN IKASTETXEAK IKUSKATZEA 2020-21eko IKASTURTEAN

2. JARDUERA:
COVID19 ak ERAGINDAKO IKASLEEN ABSENTISMOA

3. JARDUERA:
IKASTETXEEN EGOERA EZAGUTZEA, ADMINISTRAZIOARI INFORMAZIOA EMATEKO ETA ERABAKIAK ERRAZAGO HARTZEKO

4. JARDUERA:
IKASLEEN HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO LANEAN IKASTETXEEI LAGUNTZEKO HEZKUNTZA SAILAK SUSTATZEN DITUEN JARDUERETAN LANKIDETZAN ARITZEA

5, JARDUERA: JARDUEREN ESTRATEGIA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA. INPLIKAZIOA SUSTATZEA. BERRIKUNTZA

| 4.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA | IKASTETXEETAN EGIN BEHARREKO ESKU HARTZEA |
|---|---|

## 1. JARDUERA: AZ 022004 IKASTETXEAK IKUSKATZEA COVID-19aren TESTUINGURU BATEAN

**INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:**

1.a- Hezkuntza-prozesuak COVID-19ak eragindako **epidemia- eta osasun-egoerara** egokitzeko Sailak ezarritako **aparteko neurriak betetzen diren edo ez** egiaztatzeko prozedurak diseinatu eta garatzea.

2.a- Ikasleen ebaluazioaren diseinua berrikustea. Horretarako, etengabeko ebaluazioaren zentzua eta ebaluazioan eta kalifikazioan erreferentzia izango diren gutxienezko adierazle argiak definitu behar izatea ikastetxeei helaraztearen garrantzia azpimarratu beharko da. **Ikastetxeetan esku hartzeko lehentasunezko alderdiak identifikatzea.**

2.a.b- Ikastetxeak **ikuskatzeko jarduera** bat sortzea, COVID-19aren testuinguruak eragin esanguratsuagoa izan duen ikastetxeetan irakatsi eta ikasteko prozesuari eta antolaketari lotutako alderdi horiek jasoko dituena.

3.b- Txostenak ematea, txosten horiek hezkuntza-administrazioari helaraztea eta, hartu diren erabakiei begira, berorien inpaktua aztertzea.

**PROZESUA:** PR Ikastetxeetan eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.

**INPLIKATUTAKO AZPIPROZESUAK:**

AZ 021305 (ikastetxearen planifikazio-dokumentuen analisia, Ikastetxearen Urteko Plana eta Memoria batez ere; AZ021396_ikasleen ebaluazioa, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa (AZ 021313 praktiketako funtzionarioak, AZ 021314 irakasleen prestakuntza-ebaluazioa), AZ021320 zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, AZ 023387 eskola-giroaren jarraipena eta AZ 023394 elkarbizitzaren kudeaketa, AZ023386 ikasleen absentismoaren kontrola, AZ 022373 banakako curriculum-egokitzapenen kontrola, AZ022350 EED, AZ022353 irakasleen absentismoa, AZ021393 behar bezala betetzea dokumentazio akademikoa); Az 021300 ikastetxeak ikuskatzea: ikastetxeen funtzionamenduaren jarraipena eta hobetzeko proposamenak egitea.

**Jarduéraren deskripzioa:**

2020-21eko ikasturtea markatu duen epidemia- eta osasun-egoerak aldaketa inportanteak ekarri ditu ikastetxeek antolaketari, funtzionamenduari eta irakatsi eta ikasteko prozesuari aurre egin beharreko eran.

Gainera, hezkuntza-erkidegoaren eskubideak betetzea inoiz baino gehiago zaindu behar dute orain, osasun fisikoari eta emozionalari begira batez ere.

Aldaketa horiek direla-eta, laguntza eman eta jarraipena egiteko prozesuan zentratu behar ditu bere ahaleginak Hezkuntza Ikuskaritzak.

Horregatik, ikastetxeek egiten duten jardueratik eta, egoerari aurre egiteko, egin behar dituzten aldaketetatik abiatuta egin beharko du bere jardueraren zati handi bat Hezkuntza Ikuskaritzak.

Koherentzia eta jarraipena bermatuko dituen eta Ikuskaritzak ikastetxean egiten dituen jarduera guztiei zentzu globala emango dien ikuspegi sistemiko batetik planteatu beharko da jarduera. Egoerari erantzuna emateko egin beharko dituzten aldaketetan ikastetxeei laguntzea da kontua eta, gainera, ikastetxeen lana hobea izateko eman beharko dute laguntza. Horretarako, ikuspegi objektibo bat emango die.

Abiapuntu-diagnostiko batekin emango zaio jarduera honi hasiera. Diagnostiko horrek emango dio ikuskari bakoitzari laguntza, esku-hartzean arreta gehiago eskatzen duten alderdietan erabakiak hartzeko orduan.

Prozesuan zehar beste jarduera batzuei ere ekingo zaie, baita aurreko ikasturtean funtsezkoak izan diren horiei ere (zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, eskola-jazarpena, eskola-absentismoaren jarraipena, Hamaika Esku programaren jarraipena … ). Ekintza horiek lantzen jarraitu beharko da, ikastetxea ikuskatzeko marko orokor baten barruan.

Absentismoaren edo elkarbizitzari lotutako alderdien jarraipena nabarmenduko da, batez ere, ikasturte honetan. Geroago, beste atal batean azpimarratuko dira alderdi horiek.

Halaber, ikasleen aurrerapenen jarraipena eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren eta ebaluazioaren egokitzapena (alderdi hau era espezifikoan landu zen joan den ikasturtean) funtsezko elementuak izango dira jarduera honetan.

Jarduera hau aurrera eramateak diseinatzeko prozesu bat, orientabideak ematea eta laguntza-materialak eskatuko ditu, baita prestakuntza eta jarraipena egitea ere, bai martxan jarri aurretik, bai ikasturtean zehar. Horregatik, lan-talde bat eratuko da eta jarduera honetan sartuta dauden ekintzei lotutako jardueren arduradunak diren beste ekipo batzuekin koordinatu beharko du talde horrek.

Erreferentziako ikuskari bakoitzak ikastetxe bakoitzean jasotako informazioa komunikatzeko prozesu eta tresnak sartuko ditu jarduera honek. Horrek emango du egoera nola dagoen eta ikastetxe bakoitzaren eta, oro har, hezkuntza-sistemaren premiak ezagutzeko aukera. Horren ondorioz, errazago emango da informazioa eta planteatu ahal izango dira proposamenak, Hezkuntza Saileko arduradunek edo beste instituzio batzuek erabakiak hartzeari begira.

AZ022004 izeneko V92 aplikazioan jasota geratuko da jarduera hori. Aplikazio horretan ondorengo elementuak sartuko dira: ikastetxe bakoitzaren egoeraren analisia, COVID-19 egoeran dauden ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunari aurre egiteko prestatuta dauden maila, ikuskari bakoitzak ikastetxearekin ikasturtean landuko dituen helburuen planteamendua, ikasturtean zehar egingo den ikastetxearen jarduerari lotutako alderdi desberdinen jarraipena eta ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna. Azkenik, egindako ikuskatzearen ondorioz ikastetxeari planteatu zaizkion hobekuntza-proposamenak jasoko dira.

Proposamen hauek datorren ikasturtea ikuskatuko dira, ikasturte honetan aurreko ikasturtean planteatutakoak ikuskatu beharko diren era berean.

Jarduerari aurre egiteko orduan, Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten dituen jardueren markoan bi funtsezko une direla, ikastetxeak hobetzen era esanguratsuan lagunduko dutenak, hartu behar da kontuan: aholkularitza teknikoa, urteko ikuskatzearen ondoren egindako proposamenetan dagoena barne, eta ikastetxeak barne hausnarketa egiteko prozesuak bultzatzea, ikastetxearen praktikari begira eta praktika hori hobetzeko prozesua sustatzeko.

| 4.1.1 ILDO ESTRATEGIKOA | IKASTETXEETAN EGIN BEHARREKO ESKU HARTZEA |
|---|---|
| **2. JARDUERA: COVID19 ak ERAGINDAKO IKASLEEN ABSENTISMOA** | |

**INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:**

1. a- Hezkuntza-prozesuak COVID-19ak eragindako **epidemia-eta osasun-egoerara egokitzeko** Sailak ezarritako **aparteko neurriak betetzen diren edo ez** egiaztatzeko prozedurak diseinatu eta garatzea.

1.b- **Eraginkortasunaren eta inpaktuaren irizpideak** izatea, legedia betetzen den ikusteko Ikuskaritzak gaur egun egiten dituen eginkizunetako bakoitza analizatzeko eta hobetzeko premia handiena dutenak **identifikatzea,** elkarbizitzaren kudeaketari lotutakoak batez ere.
Gaurkotzeko premia duten indarreko legeriaren alderdi horiek identifikatzea.

2.b- Ikuskatze-jarduerei buruzko **memorien emaitzak** aztertzea, gaurko jarduerak (AZ) ikastetxeen hobekuntzari eragiten dioten **inpaktuaren** ikuspuntutik berrikustea eta **jarduteko eremu berriak** identifikatzea.

3.a- Hezkuntza-sistemari buruzko informazioa lortzeko gaurko tresnak hobetzea eta arinago eta eraginkorragoak izango diren beste batzuk proposatzea.

3.b- Txostenak egitea, txosten horiek hezkuntza-administrazioari helaraztea eta, hartutako erabakiei begira, izan duten eragina analizatzea.

**PROZESUA:** PR arau-kontrola / Eskubideak eta betebeharrak bermatzea
**Lotutako AZPIPROZESUAK:**
AZ 022386 Ikasleen absentismoa
AZ 022308 Etxeko arreta

Ikasturte honetan AZ 022308 eta AZ 022386 estu-estu loturik daude, arrazoi medikuengatik eta COVID-19ari lotutako arrazoiengatik ikasleak klasera ez joateak bi AZetan kasuak kudeatzean antzeko parametroen arabera eta planteamendu koherente batekin jokatu behar dela jarri behar baitu agerian.

Arreta pedagogikoa etxean ematea aparteko baliabide bat da susperraldian edota ospitaleratze-aldian dauden ikasleei arreta emateko, baina gaurko pandemia- eta osasun-alarmaren egoerak gomendatzen dutenez, aparteko arreta eman behar zaie medikuaren preskripzioa duten eta COVID-19aren ondoriozko egoerek eragiten dituzten eskaerei.

Horregatik, AZ 022308tik kudeatzen diren kasuen kudeaketarako argibide espezifikoak gaurkotu dira, AZ 022386an egiten ari den lana kontuan hartuta.

**Jarduearen deskripzioa:**

Jarduerak ondorengo helburuak ditu:
1.- Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen dituzten ikastetxeek beren ikasleen asistentzia erregistratzeko behar diren kontrol-mekanismoak betetzen dituzten edo ez ikuskatzea.
2.- Ikastetxeek absentismoaren hileroko erregistroak Ikuskaritzari bidaltzen dizkioten kontrolatzea, baita jarduteko protokoloan eman beharreko urrats guztiak betetzen diren ere.
3.- Eskola-absentismoaren arazoak lurraldeetan eta EAEn duen dimentsioaren berri Hezkuntza lurralde ordezkariei eta Hezkuntza Sailburuordetzari, hurrenez hurren, ematea.
4.- Jarduera honen ekintzak eta etxean arreta emateari lotutakoak koordinatzea.

COVID-19 egoeraren ondorioz, aurreko ikasturteekin konparatuta era esanguratsuan areagotu dira eskola-absentismoaren kasuak, bai % 20tik gorako asistentzia-faltak dituzten ikasleen artean,bai % 100eko asistentzia-faltak dituztenen artean.

Aurten absentismoaren jarraipena egitea oso konplexua dela kontuan hartuta, egoera desberdinak bereizi behar izan ditugu ikasleen asistentzia-faltei begira.

1.- Ikaslearen gaixotasuna
2.- COVID-19an positibo eman duen ikaslearen konfinamendua
3.- COVID-19an positibo eman dutenekin harreman zuzena izateagatik konfinatuak izan diren ikasleak
4.- COVID-19ak ikaslearen osasunerako dakarren arriskua (gaitzak /aldez aurreko patologiak)
5.- COVID-19a dela-eta ikaslearekin bizi direnen osasunerako arriskuak
6.- COVID-19ari beldurra izatea
7.- Ohiko absentismoa

Horregatik guztiarengatik, justifikatutako arrazoiengatik presentziarik gabeko jardueraren kasuetan eta ikasleek ikasteko prozesuarekin ahalik eta baldintza onenekin jarraituko dutela bermatzeko asmoz, ikasle horien presentziarik gabeko eskola-jarduera kontrolatu beharko dute ikastetxeek eta, egoerak ikasle baten ikaskuntza-prozesuari eragin diezaiokeela esateko zantzuak badaude, kasu horien jarraipena egin beharko dute.

Horretarako, ***"kalifikazioak eta asistentzia-faltak "*** aplikazioan atal bat jarri da, ikasle-talde bakoitzaren tutoreak ikasleen presentziarik gabeko ikaskuntzaren jarraipena egin ahal izateko eta ikasle horiei buruzko datuak astero erregistratzeko.

Kasuen ikuskapena eta jarraipena egingo ditu Hezkuntza Ikuskaritzak eta, horretarako, argibide espezifikoak emango dira.

Ikastetxeei eman beharreko aholkularitzak garrantzi berezia du ikasturte honetan,bai absentismoaren kasuen jarraipenean, bai COVID-19a dela-eta justifikatutzat jo daitezkeen asistentzia-faltei begira. Halaber, erreferentziako ikuskari bakoitzak ikastetxeetan egiten duen absentismo-parteen jarraipena oso inportantea izango da.

| 4.1.2 ILDO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA SAILEKO BESTE ZERBITZU ETA UNITATE BATZUEKIN ETA BESTE DEPARTAMENTU ETA INSTITUZIO BATZUEKIN LANKIDETZAN ARITZEA |
|---|---|

3. JARDUERA: **IKASTETXEEN EGOERA EZAGUTZEA,ADMINISTRAZIOARI INFORMAZIOA EMATEKO ETA ERABAKIAK ERRAZAGO HAR DITZAN**

**INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:**

3.a-Hezkuntza-sistemari buruzko informazioa lortzeko gaurko tresnak hobetzea eta beste arinago eta eraginkorrago batzuk proposatzea.

3.a- Kanpoko eskaerak kudeatzeko tresna era orokortuan ezartzeko prozesuari hasiera ematea.

3.a- Administraziotik eta herritarrengandik datozen eskaerak (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagunea, … ) jaso eta kudeatzeko gaurko prozedurak analizatu eta ebaluatzea.

3.b- Txostenak egitea, hezkuntza-administrazioari helaraztea eta haien inpaktua hartutako erabakiei begira aztertzea.

3.c.- Langileak kudeatzeko prozeduretan lankidetzan aritzea, araudia sortu eta egokitzeko prozesuetan aholkularitza eta laguntza ematea, informazioa jasotzea, horrela eskatzen duten egoeretan orientabideak ematea eta bitartekari gisa jardutea, Aurreraka kontrasteetan parte hartzea, …

**INPLIKATUTAKO PROZESUAK**:
PR 0213.- IKASTETXEAK HOBETZEKO LAGUNTZA EMATEA
PR 0223.- ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK BERMATZEA. ARAU KONTROLA.
PR 0243 PROGRAMEN JARRAIPENA- SISTEMAREN HELBURUAK
**AZPIPROZESUAK** :
AZ 023002 Kanpo eskaeren kudeaketa; AZ 022301 Eskaerak eta jakinarazpenak; V-92 batzordea …

**Jardueraren deskripzioa:**

Ondorengoak bezalako jarduerak eramango dira aurrera eremu honetan:

- Ondorengo egoerek eragindako txostenak egin eta hezkuntza-administrazioari helaraztea: Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten dituen jarduerak; hezkuntza-erkidegoak helarazten dizkion eskaerak, eta hezkuntza-administrazioaren errekerimenduak. Txosten horiek,hezkuntza-sistemaren egoerari,premiei eta itxaropenei buruzko datuak ez ezik, erabakiak errazago hartzen laguntzeko proposamenak ere jasoko dituzte.

- Hobe daitezkeen alderdiak, disfuntzioak eta izaera orokorreko proposamenak helaraztea, ondorengoak esate baterako: arau-erregulatzearen edo gaurkotzearen premia, ikastetxeetan edo Sailaren menpeko beste erakunde batzuetan ikusitako zailtasunak …

- COVID-19aren egoerarengatik, ikastetxeen egoerari buruzko informazioa azkar jasotzeko premia areagotu da. Ikastetxeen eguneroko egoera eta COVID-19ak ikastetxe horietan eragindako egoeraren bilakaera jaso ahal izateko moduko tresna bat gauzatuko da. Horretarako, lan-talde bat eratuko da. Jasotako informazioa egunero hezkuntza-administrazioko arduradunei helaraziko zaie.

-Ondorengoak bezalako jarduerak aurrera eramateko orduan Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzea: irakasleak atxikitzeko prozesuak; lan-eskaintza publikoak; Batxilergoko aparteko sariak; EAU antolatzeko prozesuan laguntzea; administrazio-prozesuen baremazea; Ikuskaritzaren laguntza eskatzen den batzordeetan parte hartzea; unitate desberdinei aholkularitza ematea, …

| 4.1.2 ILDO ESTRATEGIKOA | HEZKUNTZA SAILEKO BESTE ZERBITZU ETA UNITATE BATZUEKIN ETA BESTE DEPARTAMENTU ETA INSTITUZIO BATZUEKIN LANKIDETZAN ARITZEA |
|---|---|

4. JARDUERA:

**IKASLEEN HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO LANEAN IKASTETXEEI LAGUNTZEKO HEZKUNTZA SAILAK SUSTATZEN DITUEN JARDUERETAN LANKIDETZAN ARITZEA**

**INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK**

1.a- Hezkuntza-prozesuak COVID-19ak eragindako **epidemia- eta osasun-egoerara egokitzeko** Sailak ezarritako **aparteko neurriak betetzen diren edo ez** egiaztatzeko prozedurak diseinatu eta aurrera eramatea.

1.b- **Eraginkortasunaren** eta **inpaktuaren irizpideak** izatea, araudia betetzea dela-eta Ikuskaritzak gaur egiten dituen eginkizunak analizatzeko eta hobetzeko premia handiena duten **horiek identifikatzeko.**Elkarbizitzaren kudeaketari lotutakoei emango zaie arreta berezia.

2.b- Ikuskatze-jarduerei buruzko **memorien emaitzak** aztertzea, gaurko jarduerak (AZ) ikastetxeen hobekuntzari eragiten dioten **inpaktuaren** ikuspuntutik berrikustea eta **jarduteko eremu berriak** identifikatzea.

2.b- Ikuskaritzak ikastetxeetan gauzatzen dituen **jardueren** ondorioz **ikastetxeei helarazten zaien informazioa analizatzea,** jarduera horiek balioa ematen diotela segurtatzeko eta haien sakabanaketa ekiditeko.

3.a- Hezkuntza-sistemari buruzko informazioa lortzeko gaurko **tresnak** hobetzea eta beste arinago eta eraginkorrago batzuk proposatzea.

6.3- Praktika onak, hobetzeko iradokizunak, praktika berritzaileak … jasotzeko prozedurak ezartzea, praktika horiek bideragarriak diren analizatzea eta ezartzeko eta ebaluatzeko erabil daitezkeen estrategiak zehaztea.

**PROZESUAK**:

PR 0213.- IKASTETXEAK HOBETZEN LAGUNTZEA
PR 0223.- ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK BERMATZEA. ARAU KONTROLA.
PR 0233.- ELKARBIZITZA. GATAZKAK KONPONTZEA.
PR0243 PROGRAMEN JARRAIPENA – SISTEMAREN HELBURUAK

**LOTUTAKO AZPIPROZESUAK**:

AZ 023387 ESKOLA JAZARPENA ETA ELKARBIZITZA PLANAK (BIZIKASI)
AZ 024303 TXANDAKAKO PRESTAKUNTZA DUALA
AZ 024364 HAMAIKA ESKU
AZ024365 Hauspoa
AZ024324 PROGRAMA OSAGARRIAK

**Jarduera honen deskripzioa:**

Aniztasunaren arretari, zuzentasunari, metodologia berriak sustatzeari, ikastetxeetan kudeaketa hobetzeari, antolaketa-aldaketei, ikasleen emaitzak hobetzeari … begira Administrazioak sustatzen dituen programen jarraipena da jarduera honen ardatz nagusia.

Informazio horrek, izaera orokorrarekin agregatuak eta analizatuak, emango du hezkuntza-administrazioak erabakiak errazago hartzeko lagungarri izango diren proposamenak egiteko aukera.

Ikuskaritzak egingo duen programa horien jarraipena ikastetxeak hobetzen laguntzearen aldeko ikuspegi batetik eramango da aurrera, ikuskatze-ereduaren arabera.

Ondorengoak dira jardueretako batzuk:

-Sailburuordetzak sustatutako “Bizikasi “ ekimena aurrera eramateko prozesuaren jarraipena.
- “Hamaika Esku” eta “Hauspoa” programen jarraipena.
-” Kalitatea Hezkuntzan “ ikastetxeen sarearekin, Berritzegune Nagusiarekin, ISEI-IVEIrekin eta Euskalit-ekin lankidetzan aurrera eramaten ari den AURRERAKA eredua, ikastetxeak ebaluatzeari buruzkoa, sustatzeko prozesuan lankidetzan aritzea.
- Haur eta nerabeen artean babesgabetasun-, tratu txarren eta sexu-jazarpen eta abusuaren egoerak hezkuntza-eremuan prebenitzeko eta egoera horien kontra jarduteko protokoloaren, 2016ko azaroaren 15ean argitara emandakoaren, aplikazioan lankidetzan jardutea.
-Bere ildo estrategikoak sustatzeko eta COVID-19aren egoerari aurre egiteko Hezkuntza Sailburuordetzak proposatutako beste programa batzuekin lankidetzan aritzea.

Lanbide Heziketaren eremuan:

-Aldaketa metodologikoen eta prestakuntza-errendimendu altua lortzeko helburuan duten eraginkortasunaren jarraipena. (ETHAZI).
-Antolaketari begirako aldaketen eta hezkuntza-premia berezietako ikasleei arreta emateko eta premia espezifikoak dituzten kolektiboei erantzuna emateko helburuan duten eraginkortasunaren jarraipena egitea. (3 urteko Oinarrizko Lanbide Heziketa).
- Enpresak Gizarte Kontseiluan duen inpaktuaren jarraipena egitea.
- COVID-19 batzordea eratzea, COVID-19ak ikastetxeen egoeran duen eraginari lotutako datuak errazago bildu eta kudeatzeko.
- etab …

<table>
<tr><td>4.1.3- ILDO ESTRATEGIKOA</td><td>IKUSKARITZA ZERBITZUA HOBETZEA</td></tr>
<tr><td colspan="2">5. JARDUERA: JARDUEREN ESTRATEGIA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA. INPLIKAZIOA SUSTATZEA. BERRIKUNTZA.</td></tr>
<tr><td colspan="2">INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:<br><br>2.b- Ikuskatze-jarduerei buruzko memorien emaitzak analizatzea, gaurko jarduerak (AZ) ikastetxeen hobekuntzari eragiten zaion inpaktuaren ikuspuntutik eta jarduteko eremu berriak identifikatzea.<br>4.a.1- MVVren berrikuspen-gaurkotze parte-hartzaile berria. DAFO eta CAME analisia.<br><br>4.a.2- Arriskuen analisi sistematikoa errazteko prozedurak eta tresnak izatea. Arriskuak eta arrisku horiei aurrea hartzeko eta aurre egiteko prozedurak definitzea.<br><br>4.d- Kudeaketa aurreratuaren eredu baterantz urratsak ematea, kontraste bat eskatuz eta pertsonak elementua landuz.<br><br>6.1- Ingurune hurbileko eta estatu eta Europa mailako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, COVID-19 pandemiaren kudeaketari lotutakoak era berezian nabarmenduz, ikastetxeetan esku hartzeko eta hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan aritzeko praktika onak jaso eta partekatzeko.<br><br>6.2- Berrikuntza-taldea aktibatzea, funtzioak, eginkizunak, bileren maiztasuna, lan-dinamika, … gaurkotuz edo konkretatuz.<br><br>6.3- Praktika onak, hobekuntza-iradokizunak, praktika berritzaileak jasotzeko prozedurak ezartzea, praktika horiek bideragarriak diren edo ez aztertzea eta ezartzeko eta ebaluatzeko erabil daitezkeen estrategiak zehaztea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">PROZESUA:<br>MP 01: planifikazioaren eta antolaketaren estrategia<br>PR 0101 Egitekoa identifikatu eta berrikustea<br>PR 0102 Ikuskaritzaren estrategia: sistema berrikustea<br>PR 0103 Antolaketa-egitura<br>PR 0104 Barne eta kanpo komunikazioa<br><br>MP03: giza baliabideen kudeaketa<br>PR 0301 pertsonalaren hornikuntza<br>PR 0301 pertsonal berriari harrera egitea<br>PR 0301 pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzea<br><br>LOTUTAKO AZPIPROZESUAK:<br>AZ guztiak</td></tr>
</table>

**Jardueraren deskripzioa:**

Lan-talde espezifikoek eramango dituzte jarduera horietako gehienak aurrera.
Jarduera horiek ondorengoak dira:

Eremu estrategikoari lotutakoak:

- Gaurko egitekoa, ikuspegia eta baloreak berrikustea.
  Kalitate-batzorde batek koordinatuko du eta plantila guztiak era parte-hartzailean gauzatuko du.
- Kalitate- eta ikuskatze-batzordeek egindako argibide batzuen arabera azpiprozesu desberdinak berrikustea, haien eraginkortasuna hobetzeko aukerak aztertzeko asmoz.
- Kalitate-batzordetik, Euskalit-ekin kanpo kontraste bat eskatuz, kudeaketa aurreratuaren eredurantz urratsak ematea sustatuko da. Halaber, pertsonen eremua planifikatuko da eta beharrezkotzat jotzen den prestakuntza garatuko da.
- Helburuak lortu izanaren adierazleak aldizka errazago berrikusteko eta adierazle horiek Ikuskaritzaren plantilara errazago sartzeko tresna eta prozedurak ezartzea. (adierazleen taulak Share Point-en … ).
- Alde interesatuei eskaini ahal zaien Ikuskaritzaren zerbitzuen katalogo bat diseinatzea eta Ikuskaritzaren web orrian jartzea.
- Ikuskaritzaren web orriaren diseinua hobetzea, haren funtzioen irudi egokiagoa emateko eta haren edukira errazago sartzeko.
- Alde interesatuekin komunikatzeko bideak zabaltzea:ikastetxeetako zuzendaritzekin, Administrazioko gainontzeko zerbitzuekin, OOGekin /Eskola Kontseiluekin /Gizarte Kontseiluekin, familiekin, irakasleekin, ikasleekin, …
- Egindako jardueren emaitzak aztertzea, jarduera horien eraginkortasuna hobetzea sustatuko duten ondorioak lortzeko.
- Barne eta kanpo auditorien eta behar diren jardueren emaitzak analizatzea.

Pertsonen eremuari lotutakoak:

- COVID-19a dela-eta Ikuskaritzaren kontingentzia-plana egitea, lurralde espezifikotasunak sartuko dituena.
- Irakaslearen perfila egin ondoren,irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko eredu bat diseinatzeko proposamen bat eginez jarraitzea.
- Ikuskariaren gaitasun-perfilaren gaurkotzeari hasiera ematea.
- Espezializazioaren premiak barruti bakoitzean eta, oro har, Ikuskaritza Zerbitzuan identifikatzea.
- Eginkizunak edo lan-eremuak interes eta gaitasun pertsonalen arabera banatzea erraztuko duten tresnak diseinatu eta garatzea.
- Prestakuntza-jarduerak planifikatzea.Ikasturte honetan aurrera eraman beharreko eginkizunak gauzatzeko eta antolaketako pertsonen gaitasunak apur-apurka garatzeko berehalako premiei emango diete jarduera horiek erantzuna.
- Harrera-plana hobetzea eta tutoreen batzordea sustatzea.
- Barne eta kanpo komunikazioaren gaurko prozesuak aztertzea eta eraginkorragoak izan daitezen laguntzeko proposamen bat egitea.

- Barruti batetik bestera errazago aldatzeko, zonalde-burutzaren funtzioak esleitzeko eta, behar izanez gero, Ikuskaritzako lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko lehiatzaileen zerrenda zabaltzeko prozedurak gauzatzea. Administrazio eta Zerbitzuetako Sailburuordetzari egingo zaio deialdiak argitara emateko eskaera.

Berrikuntzaren eremuari lotuak:

- Beste departamentu eta instituzio batzuekin (Saileko beste zuzendaritza batzuk,EAEko beste departamentu batzuk, estatuko beste ikuskaritza batzuk, ikuskaritza europarrak … ) lankidetzan aritzea eta esperientziak eta praktika onak trukatzea.
- Ikuskaritzak ingelesez egindako dokumentazioa publikatzea. Ingeleseko ikastaro bat online eskaintzea interesatuta dauden pertsonei.
- Berrikuntza zaintzeko ekipoa aktibatzea: helburuak, beste laguntza-talde batzuekin komunikatzeko estrategiak,antolaketaren sistematizazioa eta lan-estrategia zehaztea.
- Kanpo eskaerak kudeatzeko joan zen ikasturtean Arabako lurraldean pilotatutako prozedura zonaldeei aurkeztea.
- Nazio eta nazioarte mailako gertakizunetan parte hartzea: kongresuak eta txostenak. SICIk *(Standing International Conference of Inspectorates),* Europar Batasuneko herrialde eta eskualdeetako Hezkuntza ikuskariak elkartzen diren lankidetza-erakundeak, antolatutako gertakari desberdinetan parte hartzea.

## 5.-IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA. IKUSKARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA.

4.1.3. ILDO ESTRATEGIKOAN- IKUSKARITZA ZERBITZUA HOBETZEA- kokatuak, Ikuskaritzaren prestakuntza eta haren praktika ebaluatzeko prozesuak ezinbesteko elementuak dira, jarduerak benetan aurrera eramatea lortzeko eta etengabe hobetzeko.

### 5.1 IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA PLANA

Urteko plan honetan proposatutako helburuak lortzeko lagungarri izan behar du 2020-21eko ikasturterako prestakuntza-planak eta, gainera, Ikuskaritzako plantilaren premia profesionalei eman behar die arreta; izan ere, premia horietako batzuk hartzaileak zein mailatan zeuden pozik jakiteko joan zen ikasturtean egindako inkestan jasota agertu ziren.

Ikasturte honetan ondorengo saioak antolatuko dira:

- Urteko plan honetan esku hartzeko ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak. Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei emango zaie lehentasuna.
- Gai orokorrei buruzko saio edo ikastaroak, Ikuskaritzako pertsonalaren garapen eta heldutasun profesionala sustatzeko asmoz.
- Ikuskaritzak ohiko lanean erabiltzen dituen aplikazio informatikoei buruzko prestakuntza ikuskariei eta administrariei ematea.
- Antolaketaren estrategiari eta kudeatzeko sistemari lotutako eremuei buruzko prestakuntza.
- Euskara erabiltzeko plana: Diagnostiko-ebaluazioaren emaitzetan aurrera eginez, prestakuntza- eta informazio-saioak antolatuko dira hiru lurraldeetan, euskara Hezkuntza Ikuskaritzan erabiltzeko protokoloa garatzeko eta euskararen erabilpena indartzeko asmoz.

Gainera, Ikuskaritzarentzat interesgarriak diren gaiak landuko diren foro eta jardunaldietan parte hartzeko prozesua sustatuko da eta parte-hartze horren ondorioz eskuratutako ezagutzak errazago partekatzeko prozedurak bultzatuko dira.

Prestakuntza-estrategia edo metodologia desberdinak sustatuko dira eta, haien artean, berdinen arteko prestakuntzari edo on-line prestakuntzari emango zaie lehentasuna. Plenoan edo zonalde edo lan-taldeen arabera egin ahal izango dira.

Hiruhileko ebaluazioetan jasotzen diren prestakuntza-premia edo proposamen horiek hartuko dira kontuan eta behar diren egokitzapenak egingo dira prestakuntza-planaren hasierako proposamenean.

Halaber, prestakuntza-prozesuen eraginkortasuna areagotzeko asmoz, haien eragina neurtzeko aukera emango duten prozedurak bilatzeko egingo da lan (5.d.2. helburua ikusi: *prestakuntzaren eragina neurtzeko aukera emango duten prozedurak izatea).*

Urteko plan honen IV. eranskinean aurreikusitako prestakuntza-planaren jarduerak konkretatuko dira.

## 5.2. IKUSKARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA

Ekainaren 28ko 98/2016 dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzkoan, definitzen da gaurko ebaluazio-eredua eta ikuskaritza-funtzioan aritzeko behar diren gaitasun tekniko-profesionalak, sozialak eta etiko-profesionalak ditu erreferentzia.

Ebaluazio honen ikuspegitik, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzua hobetzeko prozesuak bi alde ditu:

- gaitasun indibidualen hobekuntza,
- zerbitzuaren hobekuntza.

**Gaitasun indibidualen ebaluazioa:**
Aipatutako dekretuak aurreikusten duenez, egindako lanari buruzko ebaluazio positiboaren menpe egongo da **zerbitzu-eginkizunetan** ari diren ikuskariei zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko aukera eta, horren arabera, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunaren egoeretan ari diren pertsonei egingo zaie ebaluazioa, zerbitzu-eginkizunak luzatzeko beharreko baldintza den aldetik.

Gainera, Ikuskarien kidegoko **praktiketako funtzionarioen** ebaluazioa egin beharko da.

Ebaluazio horien marko gisa, ikuskaritza-funtzioaren gaitasunen matriz berria erabiliko da.

**Ikuskaritza zerbitzuko gaitasunen ebaluazioa:**
Ikuskaritza zerbitzu guztiaren gaitasun orokorren ebaluazio bat egingo da. Ebaluazio horrek emango du puntu indartsu eta hobekuntza-arlo globalak antzemateko aukera eta, puntu indartsu eta hobekuntza-arlo global horiek ikusita, etorkizunean hobekuntza- eta prestakuntza-planak zehaztuko dira.

**Zerbitzuaren espezializazio-premia globalen analisia.**
Ikuskaritza-zerbitzuaren premia globalak zeintzuk diren aztertuko da, zonalde eta lurralde ikuspuntutik.

Ordezkapenen zerrendak osatuko dituzten pertsonak selekzionatzeko prozesuetan hartuko dira premia global horiek kontuan.

## 6.- IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA.

*Ekainaren 28ko 98/2016 DEKRETUAK ,Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarenak,* 9. artikuluan azaltzen du Ikuskaritzaren antolaketa-egitura.

Hezkuntza Ikuskaritza Hezkuntza Sailburuordetzaren menpe dago eta Ikuskaritza Nagusiak, lurralde unitateek eta Hezkuntza Ikuskaritzaren barrutiek osatzen dute haren egitura.

Ikuskari nagusiak, Hezkuntza Sailburuordetzaren menpe dagoenak, eta hiru ikuskari zentralek osatzen dute Ikuskaritza Nagusia. Ikuskaritzaren planifikazio orokorra, prestakuntza eta kontrola dira haren oinarrizko funtzioak eta, halaber, parte-hartzea sustatu behar du. Gainera, Ikuskaritza Nagusiak du plan orokorren, hirurteko planen eta urteko planen jarraipena eta ebaluazioa gauzatzearen eta sistema ebaluatzeko eta berrikusteko planak egitearen ardura.

Lurralde unitate bana du lurralde historiko bakoitzak eta Ikuskaritzako lurralde burua, zuzenean ikuskari nagusiaren menpe dagoena, da lurralde unitate horretako buru. Ikuskaritzako lurralde unitate horiek Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako hiriburuetan dituzte egoitzak, bi egoitza: Donostia eta Eibar, dituen Gipuzkoak izan ezik.

Ikuskaritzako lurralde unitateak ikuskaritza barruti batean edo batzuetan antolatzen dira eta zonaldeko ikuskari buru batek zuzentzen ditu.

Gainera, ondorengoak bezalako batzorde edo lan-taldeen bidez eramango ditu urteko planaren jarduerak eta beroriek koordinatzeko prozesuak aurrera Ikuskaritzak:

- **Lurralde Arteko Batzordea.** Ikuskaritza Nagusiak eta Ikuskaritzako lurralde buruek osatzen dute eta hark du ondorengo jarduerak egitearen ardura: Ikuskaritzaren Urteko Plana eta berorren jarraipena eta ebaluazioa gauzatzea; ikuskaritzak hiru lurraldetan egin beharreko esku-hartzeari buruzko irizpideak bateratzea; prestakuntza-eskaerak aztertzea eta beraiei erantzuna ematea; urteko plana aurrera eramateko orduan sortzen diren gorabeherei irtenbideak bilatzea, …

- **Ikuskatze Batzordea.** Lurralde Arteko Batzordeko kideek eta zonalde buruek osatzen dute. Batzorde horrek antolaketaren jarduera orokorra ikuskatzen du, ikastetxeetan gauzatzen diren jardueren integrazioa, koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko asmoz. Sistemaren ikuskatze orokorraren emaitzak aztertu ondoren, Administrazioarentzat eta zerbitzuarentzat berarentzat orientabideak izango diren ondorio eta proposamenak egiten ditu.

  Lan-taldeen egitura apur-apurka hobetzeko prozesuan pertsonen lidergoa eta parte-hartzea sustatzeko berorren jarduera finkatu eta lan egiten jarraitu behar du batzorde horrek ikasturte honetan.

- **Azpiprozesu taldeak.** Ikuskaritzaren jarduerak diseinatzeko, inplementatzeko, sustatzeko eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko eratu dira. Bi motako lan-taldeak sortzen dira. Ikasturte honetan ekipo horietako zonalde eta lurralde mailak integratzen dituzten pertsonen arteko koordinazioari emango zaio lehentasuna, informazioa behar bezala helaraziko dela eta ikuskariek zonaldeetan egin behar dituzten lanak gauzatuko direla segurtatzeko asmoz.

- **Lan-batzordeak.** Helburu konkretuak aurrera eramateko edo sarritan iraupen mugatua duten gai espezifikoak lantzeko eratu dira.
  Ikasturte honetan batzuk eratuko dira eta urteko plan honen helburu batzuei egongo dira lotuta, datorren ikasturtean aurrera eraman beharko dituzten jarduerak planifikatzeko asmoz.
  Lankidetzan aritzeko talde-lana, lidergo partekatua eta zerbitzuaren helburuak lortzeko prozesuan plantila guztia inplikatzea sustatzearen testuinguruan hartuko da batzorde horietan parte.

Antolaketako pertsonek erakutsitako lehentasunak ere hartuko dira kontuan.

- **Kalitate Batzordea**
  ”Ikuskaritza Zerbitzuaren hobekuntza “, “estrategiaren hobekuntza “, “jardueren eraginkortasuna “, “inplikazioa sustatzea “ eta “berrikuntza “ jardueretan (4.1.3. ildo estrategikoa) jasotako lanen zati bat koordinatu beharko du ikasturte honetan.

  Gainera, aurreko hirurteko planean bete gabe geratu ziren jardueretako batzuei egin beharko die aurre, ondorengoei esate baterako: azpiprozesu guztiak, funtsezkoak direnak batez ere, berrikustea eta arrisku- eta inpaktu-analisia egitea. Antolaketa kudeaketa aurreratuaren eredura hurbiltzeko egingo du lan eta barne (horizontala eta bertikala) eta kanpo komunikazioa hobetzeko lagungarri izango diren prozesuak planifikatzeko orduan emango du laguntza.

- **Euskara erabiltzeko batzordea**
  Euskararen erabilpena komunikazioetan, txostenetan eta ikastetxeekiko harremanetan sustatu eta hobetzea ditu helburu.
  Osasun-alarmaren egoeraren ondorioz joan den ikasturtean gauzatu ezin izan ziren jarduera horiek egingo ditu ikasturte honetan.

- **Berdintasun-planaren batzordea**
  Berdintasuna, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko plan estrategikoetan,- hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko organo eskudunak sustatuko ditu plan estrategiko horiek,- Ikuskaritzari esleitutako jarduerak bete behar izatea sustatzen jarraituko du.

**IKUSKARIEI IKASTETXEAK ESLEITZEA**

Zonalde bakoitzean egin beharreko talde-lanaren kalterik gabe, erreferentziako ikuskaria den aldetik ikastetxeen kopuru zehatz bat esleituko zaio Hezkuntza ikuskari bakoitzari eta berak izango du ikastetxe horien ikuskatzearen eta esku-hartzearen ondoriozko administrazio-jarduerak egitearen ardura.

Antolaketa-egituraren arabera, erreferentziako ikuskaria den aldetik ikastetxeen kopuru zehatz bat esleituko zaio Hezkuntza ikuskari bakoitzari eta berak izango du ikastetxe horiek ikuskatzearen eta bere esku-hartzearen ondoriozko administrazio-jardueren ardura (98/2016 dekretuaren 9. artikuluaren 7. atala).

Ikastetxeak esleitzeko prozesu hori aldizka berrikusi behar da, ikuskariek jarduteko era desberdinak eta prestakuntza anitza aberasgarri baitira ikastetxeei epe luzera eman beharreko arretarako. Gainera, horrela objektibotasuna sustatzen da ikuskariek balorazioak egiteko eta, ondorioz, erabakiak hartzeko orduan.

Ikastetxez aldatu behar den kasuetan, irailean egingo dira aldaketa horiek, esleitutako ikastetxeak aldatzen dituzten ikuskariek ikastetxe horietan zituzten lanak bukatu ondoren.

98/2016 dekretuak 13.d eta 15.e artikuluetan ezarritako eskuduntzak eta funtzioak kontuan hartuta eramango da prozesu hori guztia aurrera.

**URTEKO PLAN OROKORRA LURRALDEETAN KONKRETATZEA**

Plan hau izango da erreferentzia lurralde mailako urteko planak egiteko prozesuan; izan ere, lurralde mailako planen bidez urteko plana konkretatuko da lurralde bakoitzean.

Ikuskari nagusiak ezarritako urteko planaren eta Ikuskaritzako zonalde buruak egindako lurralde planaren arabera antolatuko ditu ikasturte bakoitzerako jarduerak Ikuskaritza barruti bakoitzeko taldeak.

**7.- 2020-21eko URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA. EGUNERATZEA**

Lurralde arteko Batzordeak egingo du urteko plan honen betetze-mailaren ebaluazioa, bai eta lurralde-burutzek ere, zonaldeko burutzekin egindako koordinazio-bileretan eta zonaldeko burutza horien eta zonako taldeen arteko bileretan.

2020-21 ikasturtea amaitzean, Urteko Plan hau ebaluatuko da, honako alderdi hauen azterketa eta ondorioak kontuan hartuta:

- Lurralde arteko Batzordeak urteko planaren jarraipena egitea, ikasturtean zehar egiten diren analisi eta balorazioetan oinarrituta, bai eta Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio orokorra eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasunari buruz egiten dena ere.

- Urteko planean aurreikusitako prestakuntzaren eta aurreikusi ez den baina egin den prestakuntzaren eraginkortasunaren neurketa, bai eta indarrean dagoen urteko planean proposatutako helburuak lortzean lortzen diren emaitzak ere. Hezkuntza Ikuskaritzari egindako auditorien emaitzak (barnekoak eta kanpokoak).

- Azpiprozesuetako eta lan-batzordeetako taldeek egindako ebaluazioaren emaitzak, egindako lanari eta lortutako emaitzei dagokienez.

- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barneko eta kanpoko hartzaileen gogobetetze-maila neurtzea, bai eta horien beharrak ezagutzea ere.

- Zentroak ikuskatzeko memorian jasotzen diren egindako jardueren emaitzak aztertzea.

- Hezkuntza Ikuskaritzak eskainitako zerbitzuen hartzaileen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.

- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren dokumentazioaren eta kalitate-politikaren berrikuspenaren emaitza.

Urteko Plan honen ebaluazioa Ikuskaritza Nagusiak egindako Sistemaren Berrikuspenari buruzko txostenean (Memoria) islatuko da. Txosten horretan, gutxienez, Kalitatea Kudeatzeko Sisteman eragina izan dezaketen aldaketen iradokizunak jasoko dira, Kalitate Politika eta Kalitate Helburuak barne, prozesuaren eta zerbitzuaren helburuak eta adierazleak lortzeko emaitzak, auditoretzen emaitzak (barnekoak eta kanpokoak), prozesuetan eta zerbitzuetan gertatutako desadostasun posibleak, ekintza zuzentzaileen eta prebentzio-ekintzen egoera, gogobetetze-neurketak, iradokizunak, kexak eta erreklamazioak, hobetzeko gomendioak, Ikuskaritzak egindako lana eta ondorioen atal bat.

**URTEKO PLANA EGUNERATZEA**

Eranskinean (VII. eranskina), urteko planaren balizko aldaketak (adibidez: Batzorde edo lantalde berriak sortzea, helbururen bat betetzeko edo zenbait jarduera egiteko ezintasunaren aurreikuspena, aurreikusi gabeko ekintza berriak, etab.) eta ikaskuntza- eta hobekuntza-mugarriak (ezartzen diren aurrerapenak eta lorpenak) jasotzeko gune bat dago.

Gasteizen, 2020ko abenduaren 17an
Mª Teresa Ruiz López
Hezkuntza Ikuskari Nagusia

# ERANSKINAK

**ANEXO I: IKUSKARITZAK 2020/2021EKO IKASTURTEAN IKASTETXEETAN EGINGO DITUEN ESKU-HARTZEEN KRONOGRAMA.**



## II. ERANSKINA

# 2020-21 IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUEN ZEHAZTAPENAK

## Ikastetxeak hobetzen laguntzea

| KODEA<br>Azpiprozesua | Egiteko aldia | Aplikazio-eremua | Ikuskaritza zentrala | Azpiprozesuko lurralde arteko taldea | Azpiprozesuko lurralde-taldea | Taldearen zereginak | Azpiprozesua egitea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 2004**<br>**Ikastetxeen ikuskatzea covid-19** | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak.<br>Bi intentsitate-mailatan | X Balerdi | M. Irazoki<br>A. Maiztegi<br>P. Macho<br>M. Olabarriaga<br>I. Pardo<br>A. Delgado | B.1- P. Macho<br>B.2- Begoña Diaz Ereño<br>B.3- Mª Eugenia Esteban<br>B.4- M. Olabarriaga<br>A- I. Pardo<br>A- A. Delgado<br>G.1- Joxemari Arakama<br>G.2- M. Irazoki<br>G.3- A. Maiztegi | Jardueraren diseinua, zabalkundea, jarraipena eta ebaluazioa.<br>Txostena-memoria | Erreferentziazko ikuskariak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 02 1301<br>Kalitatea kudeatzeko sistema<br>(Aurreraka) | | KH<br>Sareko<br>ikastetxeak | X. Egizabal | R. S. Cortazar<br>A. Baraiaetxaburu<br>A. Oianguren | R. S. Cortazar<br>A. Baraiaetxaburu<br>A. Oianguren | KH sarearen eskaerei erantzutea:<br><br>- Plan estrategikoari buruzko gida zabaltzea<br><br>- Kontrasteak egitea sareko ikastetxeetan<br><br>- KH sarean abian dauden prozesuak berrikustea | Azpiprozesu taldea |
| **02 1305**<br>**IKASTETXEEN HOBEKUNTZA-IUP/MEM** | Ikasturte osoa | Lehen Hezkuntza eta DBHko ikastetxeak | X. Balerdi | P. Macho<br>A. Maiztegi<br>A.Delgado Sola | A1 – A. Delgado<br>B1 - P. Macho<br>B2 - B. Díaz<br>B3 – A- Pujana<br>B4 - A. Agudo<br>G1 – J. Nuñez<br>G2 - G del Río<br>G3 - A Maiztegi | Taldea:<br>AZ 02 2004rekin elkarlana (Ikastetxeen ikuskatzea covid 19)<br><br>Datozen ikasturteetarako jardueraren diseinua | Erreferentziazko ikuskariak |
| 02 1310<br>ZERBITZU-EGINKIZUNAK | 2. eta 3. hiruhilekoak | Eskaera eta deialdi guztiak | X. Egizabal | E. Valencia<br>J.M. Murguialday<br>M.Jauregui | A1 – M. Jauregui<br>B1 – I. Larrinaga<br>B2 – A. Mendiola<br>B3 – M. Bermeosolo<br>B4 – J. Beraza<br>G1 – J.A. Fernández<br>G2 – D. Mazuela<br>G3 – A. Unamuno | Jardueraren jarraipena<br>Jardueraren memoria | Erreferentziazko ikuskariak<br>+ Taldea |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 1013 PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOA** | Ikasturte osoa | Saileko ikastetxe publikoak<br>. | X. Balerdi | R. Saez de Cortazar<br>M.J. Morgado,<br>A. Ximeno | A1 – M. Castillo<br>B1 - A. Bastida<br>B2 – M.J. Morgado<br>B3 - N. Arroita<br>B4 – J.M. Cuesta<br>G1 - A. Ximeno<br>G2 - A. Uranga<br>G3 – E.Bidegain | – Dokumentazioa berrikustea/eguneratzea<br>- Hedapena eta jarraipena<br>- Binakako behaketa jarduera berriaren gidaritza<br>- Hautaketa batzordeak<br>- Jardueraren urteko memoria | Erreferentziazko ikuskariak |
| **02 1320 ZUZENDARITZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA** | Ikasturte osoa | 4 urteko zuzendari guztiak | X. Balerdi | M. Jauregui<br>A. Bastida<br>L.Dorronsoro | A1 - A. Epelde<br>B1 - A. Bastida<br>B2 - S. Ayarza<br>B3 - A. Baraiaetxaburu<br>B4 - B. Cabria<br>G1 – A. Oianguren<br>G2 - L. Dorronsoro<br>G3 - A. Unamuno | Taldea<br>Diseinua berrikusi<br>Zonetan hedapena<br>Jardueraren jarraipena<br>Zuzendaritzentzat triptikoa<br>Ikuskaritzarentzat jarraibideak<br>Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioaren Dekretuaren azterketa eta aldaketak proposatu.<br>Urteko memoria zabala eta exekutiboa<br><br>Erreferentziazko ikuskaria<br>Zuzendaritza bakoitzaren egoeraren araberako ebaluazioa | Erreferentziazko ikuskariak<br>+<br>Taldea |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 02 2071<br>PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak (muestra) | X. Balerdi | I. Pardo<br>J. Arakama<br>J.M. Santiago, | A1 - I. Pardo<br>B1 –Marga Ruiz<br>B2 - M.J. Morgado<br>B3 - J.M. Santiago<br>B4 - M. Olabarriaga<br>G1 – J. Arakama<br>G2 - G. del Río<br>G3 - A. Maiztegi | Taldea:<br>AZ 02 2004rekin elkarlana (Ikastetxeen ikuskatzea covid 19)<br><br>Hurrengo ikasturteetako jardueraren diseinua | Erreferentziazko ikuskariak |
| **02 2093**<br>AKTA AKADEMIKOAK ETA ESKOLA-EMAITZAK | 3. hiruhilekoa | Ikastetxe guztiak | M. Solabarrieta | J.A. Fernández<br>S. Diaz de Sarralde<br>Virginia Mosquera | A1 – Mikel Morras<br>B1 - P. Tomás<br>B2 – M. Casado<br>B3 - S. Díaz Sarralde<br>B4 - J.M. Cuesta<br>G1 - J.A. Fernández<br>G2 – X. Elosegi<br>G3 - L Salgado | Taldea:<br>Hedapena eta jarraipena<br>Plantillari formakuntza<br>Elkarrekin lotutakoaplikazioen koordinaziorako proposamena<br>Urteko memoria<br><br>Plantilla<br>Akten jarraipena<br><br>- | Erreferentziazko ikuskariak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 02 2096<br>IKASLEEN EBALUAZIOA | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak (lagina) | X. Balerdi | M. Olabarriaga<br>Inma Pardo<br>M. Irazoki | A1 – Alicia Epelde (Marina)<br>B1 – P. Tomás<br>B2 - M.J. Morgado<br>B3 - Mª E. Esteban<br>B4 - M. Olabarriaga<br>G1 – A. Jaio<br>G2 – M. Irazoki<br>G3 - J Jimenez | Taldea:<br>AZ 02 2004rekin elkarlana (Ikastetxeen ikuskatzea covid 19)<br><br>Hurrengo ikasturteetako jardueraren diseinua | Taldea |
| **02 3011**<br>LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEARI BURUZKO EBALUAZIOA | Ikasturte osoa eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | X.Egizabal | Inma Lasso<br>M. Bermeosolo<br>J. Fernández | A1 - K. Arriaga<br>B1 – I. Larrinaga<br>B2 - G. Gabantxo<br>B3 – A. Bustinza<br>B4 – G. Larrruzea<br>G1 - J. Fernández | Taldea<br>V92n jardueraren diseinua berrikusi.<br>Irizpide komunak bateratu.<br>Jarraibideak egin.<br>Hedapena eta jarraipena.<br>Araudiaren berrikuspena.<br>Memoria.<br><br>Plantilla:<br>Eskaeren arabera. | Erreferentziazko ikuskariak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 3012**<br>IRAKASKUNTZA-GAITASUNAREN EBALUAZIOA | Ikasturte osoa eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | M. Ruiz<br>J.M Solabarrieta | V. Mosquera<br>B. Cabria<br>A. Oianguren | A1 – V. Mosquera<br>B1 – P. Macho<br>B2 – A. Fernandez<br>B4 – M.L. Olaran<br>B4 –B. Cabria<br>G1 - A. Oianguren<br>G2- X. Elosegui<br>G3- J. Jiménez | Taldea<br>AZren dokumentazioa berrikusi eta eguneratu.<br><br>Plantilla<br>Ordezkariaren eskaerak bideratu | Taldea<br>Erreferentziazko ikuskariak |

## Eskubideen eta betebeharren bermea/arauen kontrola

| KODEA<br>Azpiprozesua | Egiteko aldia | Aplikazio-eremua | Ikuskaritza zentrala | Azpiprozesuko lurralde arteko taldea | Azpiprozesuko lurralde-taldea | Taldearen zereginak | Azpiprozesua egitea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 3060**<br>ZUZENDARITZA-TALDEAK IZENDATZEA | 3. hiruhilekoa | Ikastetxe publiko guztiak | X. Egizabal | J. Orue<br>Roberto Saez de Cortazar (Marina)<br>J.Jimenez | A1 – Roberto(M. García)<br>B1 - J. Orue<br>B2 – M. Casado<br>B3- M. Agirreazkuenaga<br>B4 - J.S. Gartzia<br>G1 – J.Nuñez<br>G2 - R. Aliaga<br>G3 - J. Jimenez | Taldea:<br>V92n jarduera berrikusi.<br>Zuzendarien hautaketa taldearekin koordinazioa.<br>Jarraipena<br>Memoria<br><br>Plantilla:<br>Zuzendaritza proposamena | Erreferentziazko ikuskariak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **0230 59**<br>ZUZENDARIAK HAUTATZEA | 3.<br>hiruhilekoa | Ikastetxe publiko guztiak | Xabier Balerdi | L. Dorronsoro<br>M. Jauregui<br>J. Orue | A1- Roberto S. Cortazar<br>B1 - J. Orue<br>B2- K. Marina<br>B3- A. Egiraun<br>B4 – J.M. Cuesta<br>G1 - A. Oianguren<br>G2 - L. Dorronsoro<br>G3 - A. Unamuno | Taldea:<br>Dokumentazioaren berrikuspena<br>Prozesuaren jarraipena (*20-21 Ikasturtean Deialdia*).<br>Hautaketa Batzordeen kudeaketa.<br>Jarraibideak egin<br>Plantilari formakuntza<br><br>Plantilla<br>Batzordeak zuzendu eta kudeatu. | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **022350**<br>**DAE KONTROLATZEA** | 1. eta 2. hiruhilekoak | Ikastetxe guztiak | M. Solabarrieta | D. Mazuela<br>R. Sáez de C.<br>A. Mendiola | A1 - Roberto<br>B1 – A. Bastida<br>B2 - A. Mendiola<br>B3 – A. Eguiraun<br>B4 – J. Beraza<br>G1 – A. Jaio<br>G2 - M. Irazoki<br>G3 - J. Jimenez | Taldea:<br>Jardueraren jarraipen orokorra<br>Plantilla:<br>Ordutegi kontrola, ez-etortzeak, grebak… | Erreferentziazko ikuskariak |
| **02 2361**<br>ZUZENDARI EZ DIREN KARGUDUNEN IZENDAPENA | 1. eta 2. hiruhilekoak | Ikastetxe guztiak | M. Solabarrieta | D. Mazuela<br>R. Sáez de C.<br>A. Mendiola | A1 - Roberto<br>B1 – A. Bastida<br>B2 - A. Mendiola<br>B3 – A. Eguiraun<br>B4 – J. Beraza<br>G1 – A. Jaio<br>G2 - M. Irazoki<br>G3 - J. Jimenez | Taldea:<br>Jardueraren jarraipen orokorra<br>Plantilla<br>Zuzendari ez diren kargudunen izendapena. | Erreferentziazko ikuskariak |
| 02 2355<br>ESKOLA-EGUTEGIAK ETA ORDUTEGIAK | 2. eta 3. hiruhilekoak | Ikastetxe guztiak | M. Solabarrieta | A. Mendiola<br>K. Arriaga<br>P. Arrondo | A1 - K. Arriaga<br>B1 – X. Mendoza<br>B2 - A. Mendiola<br>B3 – A. Egiraun<br>B4 - A. Agudo<br>G1 – P.Arrondo<br>G2 – M.Meijide<br>G3 – L. Salgado | Taldea:<br>Ordutegi-aldaketen… aurrean irizpideen bateratzea.<br>.<br>Jardueraren hedapen eta jarraipen orokorra<br>Plantilla:<br>Egutegien kontrola. | Ikuskari Taldea |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 2373**<br>CEIAK ETA CURRICULUMA MALGUTZEKO NEURRIAK | 1. hiruhilekoa | Proposamen guztiak | Xabier Balerdi | E. Valencia<br>Sorkunde C.<br>L. Dorronsoro | A – M. Castillo<br>A – V. Mosquera<br>B1- P. Macho<br>B2 – K. Marina<br>B3 - M. Miguel<br>B4 – A.Agudo, A.F Gonzalez<br>G1 – M.J.Fernández<br>G2 - L. Dorronsoro<br>G3- A. Maiztegi | Taldea:<br>Berritzeguneekin bilerak.<br>Jardueraren jarraipen orokorra.<br>Memoria.<br>Erreklamazioak artatu.<br><br>Plantilla<br>Berrikuspema eta Ikuskaritzaren OE. | Ikuskari Taldea |
| **02 2386**<br>**IKASLEEN ABSENTISMOA** | Ikasturte osoa | Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe guztiak | M. Solabarrieta | A. Pujana<br>Inma Lasso<br>P. Carnicero | A1 – Inma Lasso<br>B1 - P. Tomás<br>B2 – B. Manzarbeitia<br>B3 – A. Pujana<br>B4 - A.F. González<br>G1 - P. Carnicero<br>G2 – J. Bengoetxea<br>G3 – E.Bidegain | Taldea<br>-Ohiko absentismoaren eta covid19 absentismoaren jarraipen orokorra.<br>- Covid19 absentismoaren eta V92ko garapen berriari buruzko jarraibideak egin.<br>-Hedapen eta Jarraipena.<br>- Etxez-etxeko arreta, AZ 022308-rekin, koordinazioa.<br>-Memoria.<br><br>Plantilla<br>Absentismo kasuen jarraipena. | Taldea<br><br>Erreferentziazko ikuskariak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 3301**<br>**ESKAERAK/JAKINARAZPENAK** | Ikasturte osoa | Ikastetxe eta eskaera guztiak | X. Egizabal | E. Valencia<br>J.M Murguialday<br>M. Jauregui | Zonalde Buruak | <u>Taldea:</u><br>AZren berrikuspena.<br>Jarraipen orokorra.<br>Memoria.<br><u>Plantilla:</u><br>Eskaeren arabera. | Erreferentziazko ikuskariak edo izendatutako ikuskaria |
| **0230 02**<br>**ATENCIÓN A DEMANDAS EXTERNAS** | Ikasturte osoa | Eskaera guztiak | X. Egizabal | V. Mosquera | Zonalde Buruak | Jardueraren diseinua V 92n.<br>Hedapen eta Jarraipena.<br>Memoria. | Hautazkoa<br>Zonaldeen eskaeren arabera |
| **022308**<br>ETXEKO HEZKUNTZA-ARRETA | Ikasturte osoa eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | X. Egizabal | **E. Valencia**<br>J.M Murguialday<br>M. Jauregui | A1 – V. Mosquera<br>B1 B2 B3 B4 - C. Fernández<br>G1 G2 G3– A. Ximeno | <u>Taldea:</u><br>Jarraibideak berrikusi eta covid19 egoerari egokituz eguneratu.<br>Hedapen eta Jarraipena.<br>Memoria.<br><u>Plantilla:</u><br>Eskaeren arabera. | Erreferentziazko ikuskariak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 2353**<br>LANGILEEN ABSENTISMOA | Ikasturte osoa | Ikastetxe publiko guztiak | X. Egizabal | B. Manzarbeitia<br>J. Bengoetxea<br>Inma Lasso | A1 – Inma Lasso<br>B1 – K. Totorikaguena<br>B2 - B. Manzarbeitia<br>B3 – L. Barrutia<br>B4 - C. Fernandez<br>G1 – M.J. Fernández<br>G2 - J. Bengoetxea<br>G3 – E.Bidegain | AZ Berrikusi<br>Hedapen eta Jarraipena<br>Emaitzen txostena | Erreferentziazko ikuskariak<br>+ Taldea |
| **02 3082**<br>KALIFIKAZIOEN AURKAKO ERREKLAMAZIOA | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak | M. Ruiz<br>X. Egizabal | G. Larrucea<br>I. Erice<br>Alicia Epelde<br>(Marina Garcia) | A1 – Alicia Epelde<br>B1 - Marga Ruiz<br>B2 – B. Diaz<br>B3 - M. Ituarte<br>B4 – G. Larrucea<br>G1 - I. Erice | Prozeduraren berrikuspena.<br>Jardueraren diseinua V92n<br>Arau-berrikuspenaren taldearekin elkarlana.<br>Hedapen eta Jarraipena.<br>Memoria | |
| **02 2**383<br>EUSKARAKO SALBUESPENAK | 1.hiruhilekoa | Eskaera guztiak | M. Solabarrieta | E. Valencia<br>I. Pardo<br>R. Bergaretxe | A – M. Morras<br>A - I. Pardo<br>A - A. Epelde<br>B1 – J. Idoyaga<br>B2 - G. Gabantxo<br>B3 – M. Martínez, M. Esteban<br>B4 - M. Olabarriaga<br>G - I. Erice<br>G - R. Bergaretxe<br>G - A.R. Maiztegi | Eskaeren kudeaketa.<br>Gorako helegiteei erantzuna.<br>Memoria. | Ikuskari Taldea |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 23 85**<br><br>IRAKASLEEN TITULUAK | 2. eta 3. hiruhilekoak | Ikastetxe pribatuak | M. Ruiz<br>X. Egizabal<br><br>M | M. L. Olaran<br>I. Erice<br>Inma Lasso | A1 – A.Delgado<br>B1 - I. Larrinaga<br>B2 – S. Ayarza<br>B3 – M.L. Olaran<br>B4 - J.S. Gartzia<br>G1 – I. Erice<br>G2 - R. Bergaretxe<br>G3 – E. Bidegain | Taldea:<br>- Jardueraren diseinua V92n.<br>-Ikuskaritzaren irismenaren definizioa.<br>Arau-proposamenak.<br>Jarraibideak.<br>Hedapena.<br>Formakuntza (Ikuskaritza-pertsonala-kudeaketa)<br>-Memoria.<br><br>Plantilla<br>Eskaeren arabera txostenak gauzatu. | Equipo<br><br>Erreferentziazko ikuskariak |
| **0230 92**<br>Huelgas personal y alumnado | Ikasturte osoa | Ikastetxe publiko guztiak | X. Egizabal | D. Mazuela<br>R. Saez de C.<br>J. Beraza | Jefes de Zona<br>G1 – A. Jaio<br>G2 - M. Irazoki<br>G3 - J. Jimenez | Datu bilketa<br>Recogida de datos<br>Jarraipena<br>Seguimiento<br>Administrazioari txostena<br>Memoria | Talde arduraduna |

# Bizikidetza-Gatazkak konpontzea

| KODEA<br>Azpiprozesua | Egiteko aldia | Aplikazio-eremua | Ikuskaritza zentrala | Azpiprozesuko lurralde arteko taldea | Azpiprozesuko lurralde-taldea | Taldearen zereginak | Azpiprozesua egitea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 3381**<br>JOKABIDEAK ZUZENTZEKO PROZEDURAK | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak | M. Ruiz<br>M. Solabarrieta | K. Arriaga<br>G. Larruzea<br>A Uranga | A1 - K. Arriaga<br>B1 – Marga Ruiz<br>B2 - G. Gabantxo<br>B3 - E. Gumucio<br>B4 - G. Larrucea<br>G1 - J. Núñez<br>G2 - A Uranga<br>G3 - L. Salgado | - V 92an jardueraren diseinua berrikusi.<br>- Aldaketen hedapena.<br>-Jarraipena<br>- Eskubide eta Betebeharren Dekretuaren berrikuspena hasi: Proposamena.<br>- Memoria. | Erreferentziazko ikuskariak<br><br>C |
| **023087**<br>**ESKOLA-JAZARPENA ETA BIZIKIDETZA-PLANAK (BIZIKASI)** | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak | M. Solabarrieta | A. Fernández<br>I. Pardo<br>L. Isasa | A1 – I. Pardo<br>B1 – J. Idoyaga<br>B2 - A. Fernandez<br>B3 - JM Santiago<br>B4 - B. Cabria<br>G1 - L. Isasa<br>G2 - A Uranga<br>G3 - J. Jiménez | V 92an jarduera berrikusi.<br>-Hedapen eta Jarraipena.<br>-Formakuntza antolatu.<br>Organizar formación<br>- Eskubide eta Betebeharren Dekretuaren berrikuspen-prozesua hasi Proposamena | Erreferentziazko ikuskariak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 3391**<br>IKASTETXE PUBLIKOETAKO LANGILEEN AURKAKO ERASO-KASUAK | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak | M. Ruiz<br>M. Solabarrieta | L. Orueta<br>**A. Delgado**<br>E. Bidegain | A1 - A. Delgado<br>B1 - J. Idoyaga<br>B2- M. J. Morgado<br>B3 – N. Zabaleta<br>B4 – L. Orueta<br>G3 - E. Bidegain | -V 92an jardueraren diseinua berrikusi.<br>- Aldaketen hedapena.<br>-Jarraipena<br>- Protokoloaren berrikuspena hasi. LAPZrekin koordinazioa<br>- Memoria. | Erreferentziazko ikuskariak |
| 02 3395<br>ENPLEGATU PUBLIKOEN DIZIPLINA-ARAUBIDEA | Ikasturte osoa | Ikastetxe publikoak | M. Ruiz<br><br>M. Solabarrieta | A. Epelde<br>M. Miguel<br>J. Fernandez | A1 – M Morras<br>B1 – P. Macho<br>B2 – A. Fernandez<br>B3 - M. Miguel<br>B4 – L. Orueta<br>G1 – J. Fernandez<br>G2 – X. Elosegui<br>G3 - J. Jiménez | Taldea:<br>AZren dokumentazioa berrikusi eta eguneratu.<br>Diziplina araubideaz formakuntza<br><br>Plantilla:<br>Instruzioa eskaeren arabera | Ikuskari guztiak |

# Programen jarraipena – Sistemaren helburuak

| KODEA<br>Azpiprozesua | Egiteko aldia | Aplikazio-eremua | Ikuskaritza zentrala | Azpiprozesuko lurralde arteko taldea | Azpiprozesuko lurralde-taldea | Taldearen zereginak | Azpiprozesua egitea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 4303**<br>**IKAS-EKINEZKO HEZIKETA DUALA/ LHn ESKUHARTZEAK.** | | | X. Egizabal | L. Salgado<br>K. Arriaga<br>M. Bermeosolo | A1 - K. Arriaga/I. Lasso<br>B1 – X. Mendoza<br>B2 - G. Gabantxo<br>B3 - A. Bustinza<br>B4 - J. Beraza<br>G1 – P. Arrondo<br>G2 – M. Meijide<br>G3 - L. Salgado | AZ berrikusi.<br>Azpiprozesu liburua hobetu.<br>Memoria. | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **0220 64**<br>**HAMAIKA ESKU** | Ikasturte osoa | Programako Ikastetxe guztiak | X Balerdi | **M. Jauregui**<br>A.F. González<br>J.M. Arakama | A1 – M Castillo<br>B1 – A.F. González<br>B2 – K. Marina<br>B3 – M. Ituarte<br>B4 - M. Olabarriaga<br>G1 - J.M. Arakama | Taldea:<br>Ikuskari eta ikastexeko aholkularientazt jarraibideak: ikasturte honen garapenerako oharrak.<br>19-20 ikasturteko pandemia: bukatzeke dauden lanak amaitu.<br>Programaren Jarraipen talde teknikoan parte hartu.<br>AZren Memoria.<br>Programa bukaerako talde teknikoaren Memoria<br><br>Plantilla:<br>Programaren jarraipena 62 ikastetxeetan | Erreferentziazko ikuskariak |
| **02 2065**<br>HAUSPOA | Ikasturte osoa | Programako Ikastetxe guztiak | Xabier Balerdi | J.S. Gartzia<br>Marta Castillo (Marina)<br>L. Dorronsoro® | A1 – M. Castillo Marina Garcia<br>B1 - I. Larrinaga<br>B2 - S. Ayarza<br>B3 – M. Martínez<br>B4 – J.S. Gartzia<br>G1 – J.Núñez<br>G2 - L. Dorronsoro<br>G3 - A.R. Maiztegi | Taldea:<br>19-20 ikasturteko covid: bukatzeke dauden lanak amaitu.<br>Jarraipena<br>Memoria<br><br>Plantilla:<br>Programaren jarraipena ikastetxean. | Erreferentziazko ikuskariak<br><br>c |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **02 4324**<br>ESKOLATZEKO PROGRAMA OSAGARRIAK | Ikasturte osoa eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | X Eguizabal | C. Fernandez<br>M. Morras<br>R. Aliaga | A1 – M. Morras<br>B1 - Marga Ruiz<br>B2 - B. Manzarbeitia<br>B3 - M. Aguirreazkuenaga<br>B4 - C. Fernandez<br>G2- R. Aliaga<br>G1- M.J. Fernández<br>G3-E.Bidegain | Taldea:<br>V92n jarduera berrikusi.<br>Jarraipena.<br>Memoria.<br>Plantilla:<br>Eskaeren arabera txostena.<br>Jarraipena. | Erreferentziazko ikuskariak |

# Ikuskaritzak planifikatutako lankidetza-jarduerak

| Ikuskaritzak planifikatutako lankidetza-jarduerak | Egiteko aldia | Aplikazio-eremua | Ikuskaritza zentrala | Arduraduna | Azpiprozesuko lurralde arteko taldea | Taldearen zereginak | Azpiprozesua egitea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0230 02<br>Ikuskaritzak planifikatutako lankidetza-jarduerak | Jasotako eskaeraren arabera eta zehazten diren jarraibideen arabera | | M. Ruiz<br>M. Solabarrieta<br>X. Egizabal<br>X. Balerdi | Eskaeraren arabera | Ikuskaritza zentrala edo eskuordetzen den taldea | Jasotako eskaeraren arabera eta zehazten diren jarraibideen arabera | Jarraibideen arabera |
| **0230 54**<br>Elección órganos colegiados | Ikastetxe guztiak<br>1. Hiruhilekoa | | X.Egizabal | A. Epelde<br>M. L. Olaran<br>**A. Maiztegi** | A. Epelde<br>S. Diaz de Sarralde<br>M.L. Olaran<br>A. Maiztegi<br>A.Jaio<br>J.Bengoetxea | V 92an jardueraren diseinua berrikusi.<br>Materialak sortu<br>Hedapen eta Jarraipena.<br>Emaitzen txostena. | Erreferentziazko ikuskariak |

# Beste Lantalde eta Lan-Batzorde batzuk

